

# Galtzaundi



**ESKUALDEA:** Txintxarri eguna Alegian »» Anoetarren herri-sinesmenak aztergai

**KULTURA:** Bonbereneak 11 urte »» "Piratak" Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen ikuskizun berria

»» Humus taldea "Lekua" disko berriaz **KIROL SALTSA:** Su-berri Anoetako pilota elkartearen aurkezpena

**ELKARRIZKETA:** Jose Luis Rebordinos, guztiaren gaineretik zine ikuslea



*Herri aldizkariak,  
herritarrek eginak  
herritarrentzat*





# berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.  
Instalazio industrialak eta etxeakoak, eguzki-energia.  
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.  
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

**Denda:** Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa  
Tel.: 943 653 307  
Tel. / Fax: 943 650 520  
E-mail: muebles@berogas.com

**Bulegoak:** Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa  
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977  
Fax: 943 675 421  
E-mail: berogas@berogas.com

[www.berogas.com](http://www.berogas.com)




## MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

2. betaurreko 98€  
3. irizteak barne

[www.multiopticasgipuzkoa.com](http://www.multiopticasgipuzkoa.com)

Ikuskeria berri bako 369501etik 661031ra artekoa da. Besta 1.5 leire organiko, gozortailu, sineskor, +2. estera, +169. 4ra. Bikaintzaren bakoia betusmeko batiari graduado bantilla bantillatza da eta ezin da metatu beste promozioetara.

J. Carlos Guerra 1 Tel. 943 79 29 95 ARRASATE	Ibergarai 16 Tel. 943 76 15 75 BERGARA	C/ Nueva 15 - GROS Tel. 943 32 66 45 DONOSTIA	Bidebarrieta 2 Tel. 943 20 05 22 EIBAR	Koldo Mitxelena, 7 Tel. 943 51 78 11 ERRENTERIA	Mendibil M. G. Tel. 943 63 99 01 IRUN	J.M. Barandiaran Erip. Tel. 943 88 99 88 ORDIZIA	San Frantzisko 23 Tel. 943 69 84 70 TOLOSA
---	--	---	--	---	---	--	--



## aldama\_tapia

aholkularitza

Foruen Etorbidea\_7  
20400\_TOLOSA Gipuzkoa  
Tel\_943 650 375  
Faxa\_943 655 206  
[gtolosa@aldamatapia.com](mailto:gtolosa@aldamatapia.com)  
[www.aldamatapia.com](http://www.aldamatapia.com)



**Argitaratzailea:** Galtzaundi Euskara Taldea.

**Helbidea:** Nafarroa etorbidea, 6-behea, 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

**Telefonoa:** 943 655 004

**Faxa:** 943 654 983

**e-posta:** galtzaundi@galtzaundi.com

**Webgunea:** www.galtzaundi.com

**Koordinazioa:** Leire Zubeldia.

**Erredakzio taldea:** Igotz Alkorta, Felix Aiestaran, Amaia Goikoetxea Azpeitia.

**Kolaboratzaileak:** Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Begoña Aristi, Antxon Izagirre, Ibon Artola, Inigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Amaia Goikoetxea Orbegozo.

**Publizitatea:** Angela Alamo.

**Banatzaileak:** Oihana Sanchez, Juankar Arregi.

**Idazkaria:** Edurne Mendia.

**Maketazioa:** Zigor Agirrezabala

**Diseinua:** Jon Ander Ubeda eta Maddi Trubuelo.

**Azala:** Galtzaundi

**Inprimategia:** Antza.

**Tirada:** 5.000 ale.

**Lege gordailua:** SS-906/91.

**Frankeo Itundua:** 37/94.

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Balianrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta initzen erantzukizunik.



**bai euskarari**  
zerbitzua eta lana euskaraz



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

Aldizkari honen Gipuzkoako Foru Aldundian laguntza jaso du.

**IRITZIAREN LEIHOA**

- Txomin Garmendia: Erri bat izan zan.
- Jon Azpiroz: Azoketan kalitate.

**NORMALIZAZIO ATALA**

- Euskararen Nazioarteko Eguna



**ESKUALDEKO ALBISTEAK**

- Txintxarri abesbatzaren hamaikagarren eguna
- Anoetarren herri sinismenak aztergai.

4-5. orrialdeak

6. orrialdea

10-13 orrialdeak

# Galtzaundi 290

2008ko azaroaren 21a

Iritziaren leihoa: Txomin Garmendia eta Jon Azpiroz .....4-5

Eskualdeko albisteak:

- Txintxarri egunari begira.....10-11
- Anoetarren herri-sinismenak aztergai.....12-13
- Kultura: Bonberenearen hamaikagarren urteurrena .....20-21
- Pirritx, Porrotx eta Mari Motots piratak.....22-23
- Humus taldearen disko berria .....24-25
- Kirol saltsa: Su-berri pilota elkartearen aurkezpena .....26-27



**ERREPORTAIA**  
Eskualdeko herri aldizkariak

7-9. orrialdeak



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutako argitalpena

### ELKARRIZKETA

*“Zorionez, ni batez ere zine ikuslea naiz. Eta espero dut ezaugarri hori bizi naizen artean mantentzea. Nire ustez, zine programatzaile batek ikuslearen izaera hori galtzen duenean dena galtzen du. Niri filmak ikustea gustatzen zait. Alde horretatik, zorte handia dut, filme asko ikusteko aukera ematen didan lana baitaukat. Egia da, baita ere, filmak ikustea lana bilakatzten denean, eta egun batean 10 filme ikusi behar badituzu, ba plazer hori desagertu egin daitekeela. Nik ordea ez dut grina hori galdu eta urteko uzta ikusteko ilusioarekin egoten naiz.”*

• Jose Luis Rebordinos  
ZINE PROGRAMATZAILA

15-17 orrialdea





## ERRI BAT IZAN ZAN

### TXOMIN GARMENDIA

Bertsolaria

**N**ikolas Ormaetxea "Orixe" olerkari eta idazle sonatuak, bere "Euskaldunak" liburaren aseran olerki au jarri zun:

*Zatozkida, goi-arnas  
Eizu nerekin lan,  
Erri baten arnasa  
Mamitu dezadan.  
Geroak esan beza:  
"erri bat izan zan";  
edo-ta ats emaiogun  
ontan irauin dezan.*

Urte batzuk bizkarrean daramazkigunok gaurko Euskal-erriari begiratuta, "erri bat izan zan" ez ote genezake esan? Gure erriaren iru zunttoi aundi basarria, euskera eta erlijioa izan zirala esan behar. Guk ezagutu gendun basarri molde ura galdu zan, eta berekin oitura eta euskerazko itz asko ere; eta au da polita, gelditzen diran basarri bakanak inoiz baiño txukunagoak

ikusiko ditugu, baiña beren ingurutan inoiz baiño kirats txarragoarekin eta ez dago esan bearrrik zergatik.

Eta non dago garai bateko euskera? Garai batean kalean eta mendian oparo zabilen

izkuntza mendu alde-  
ra baztatu  
zan, eta basarriaren ba-  
besean bizi;  
orain basarria galdu  
delako-edo,  
kalera jetxi  
da berriro;  
baiña zer  
soiñeko artu  
du? Adibide

bat, gure arteko idazle batena da onako au eguneroko batean: "Bestalde, hemengo giro soziopolitiko dela medio, mezu deklarativo, konpromisibo, konatibo, espresibo eta metalinguistiko asko azalduko da bertsolarien diskurtsoan,

sarri askotan gaiak orretera bultzatuta". "Orixe" zana (G.B) begira balego edo irakurriko balu zer esango ote luke?

Bagenitun-ba, euskera gozo eta eder bat itzegin nai ba-



gendun irak-  
kasle ede-  
rrak? Adibi-  
dez, nun da-  
go Basarri-  
ren gozota-  
sun ura? Eta  
gipuzkera  
itzegin  
arren, eus-  
kaldunik  
etzan izan-  
go ari uler-  
tzen etzio-  
nik; ori esan  
en ziguten bein-  
tzat, naiz Bizkaian, naiz Iparraldean gertatu izan giñanetan. Ala ere, bere izkuntza bazturtua ikusten da gaur, aolku pranko eman zigun arren. Oraindik zorionez badauzkagu, irakasle bear lute-

*"Adibidez, basarria, bizimoduaren bearrak aldatu arazi du edo galdu; baiña, euskera eta erlijioa ez zauden etekiñan gora-beran-edo, bildotzez jantzitako otsoen eraginñak dira?"*

ken euskaldunak, baiña, bagoaz bagoazen bezela...

Eta zer esan gure erlijio edo eleizatzaz? Nork esan garai batea ontara iritxi bear gendunik?

Adibidez, basarria, bizimoduaren bearrak aldatu arazi du edo galdu; baiña, euskera eta erlijioa ez zauden etekiñan jantzitako otsoen eraginñak dira?

Erri bat izaten jarraituko degula ez dago zalantzarik, nolakoa izango dan dago karkoa. Garbi dagona da, "erri bat izan zan". ■



## AZOKETAN KALITATEA

### JON AZPIROZ

Bedaioiko Artubi Elkarteko kidea

**U**dazkenean sartu gaurgori gori, azken hilabetetako euriak ez du uzta borobiltzen utzi baina kalitatezko produktuak bildu eta biltzen ari dira ondorengo egunetako herri azoketan azaltzeko.

Eremu zabaleko merkatu erraldoi horietan egiten dira erosketak gaurko egunean, aisialdia eta erosketak loturiko horietan, eta bakoitzak nahi duen lekuan egiten ditu erosketak. Baina herri desberdinetan eta udazkenetik negu aldera burutzen diren feria edo azoka desberdinetan parte hartzea komenigarria litzateke, ez soilik paseatzera baizik eta erosketak egitera.

Azoka hauetan sarri ikusiko ditugu denboraldiko produktuak, udaberritik udazkenera mimoz zainduriko produktuak, baserritarra bai baita kalitatezko produkturik azaltzen ez badu jai duela.

Bedaion adibidez, landa eremua izanik, ez du baserriko lanegunetan ematen, gaurko egunetan sektore honek kanpoko produktuekin kompetentzia izugarria baitu. Baina baserritarra, baratzaz aparte, inguruko basoak ere garbitu eta mantendu ohi izan ditu, diru ordainik jaso gabe, bere ingurua txukun mantendu nahi duelako, eta noski, denok disfrutatzen dugu horretaz. Zein gozota den perretxiko bila joatea eta basoa garbi ikustea! Noski, norbaitek aurretik la-

nak eginda gero. Horra hor baserritarra.

Bedaioiko azokan egiten diren salmentak ez dute noski bikoitzaren emaitza erakustea gustagarri izaten da, gero bakoitzak ikusiko du erosi edo ez erosi, baina kontutan izan, produktu hori maiterko zaindua izan dela".

an, lan gogorraren emaitza erakustea gustagarri izaten da, gero bakoitzak ikusiko du erosi edo ez erosi, baina kontutan izan, produktu hori maiterko zainduta izan dela.

Atal hau aprobetxatuz adieraziko dizuegu abenduaren 14an Bedaioiko azoka ospatuko dela. Aurten denboraz urri bagabiltza ere, bedaiotarrentzat eta noski kanpokoentzat erdigunean kokaturiko eremu polit bat zabaltzeko aukera dugu, azoka handitzeko aukera izanik.

Hortaz, Bedaiora hurbildu eta gozatzeko gonbitea zabalduzuzue. ■



**NUEVO CITROËN C4 BERRIA**  
12.100€\*tik hasita  
\*ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI

**PREZIO BERRIAK GAMA GUZTIETAN:**

 CITROËN C1 7.600€*tik hasita	 CITROËN C3 9.200€*tik hasita + ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI**
 CITROËN XSARA PICASSO 12.900€*tik hasita + ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI**	 CITROËN C4 PICASSO 18.350€*tik hasita + ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI**

Informazioa Citroën 902 44 55 66  
CITROËN profiere TOTAL CITROËN Credit Patrocinador Oficial

\*Publikoari aholkatutako prezioa: C1 1.0d3p, C3 1.1i Furo, C4 1.4 16v 90cv LX Sp., Xsara Picasso 1.6i 16v LX Plus, C4 Picasso Sp, Vti 120 Cool (B.Z.E., matrikulazio zerga, garraio eta eskaintza promozioa barne). Eskaintza ez metagarriak. Hilebeite amaierara arte balio du stock-ean dauden turrimontant perintulan eta Balaer Irtean bezero partikularrentzat, operazioan parte hartzen duten salmenta puntuetan, leuzagailu dauden modeloak. C1 Audace, C3 Exclusive, C4 Exclusive Plus, Xsara Picasso Exclusive, C4 Xsara Picasso Exclusive. SP, matrikulazio zerga, garraioa eta eskaintza barne). Eskaintza metatzen. Hilebeite bukatara bitarte baliaziarik, autorizazioa eta stock-ean dauden autorizazioak. Perintulan etia. Batamutuan bezero partikularrentzat, operazioan parte hartzen duten ohiok salerari. Irudietako argazkiak: C3 Exclusive, C4 VTR Plus Sp., C4 Picasso Exclusive Sp. - 1) Arrisku orotako aseguruia opari frantziar (210 - 600 euro arteko) barne, lehenengo urte osian, Direct Seguros enbaserrekin eta Agn Gil y Carvajal S.A. aseguru konpainiarekin bitarrentzat. Citroën Credit-ek eskaintza. C4 edo C4 Picasso Sp erosten duen 28 urteko gorako bezeroentzat eta C3-a erosten duen eta 5.000 euroko gaitasun ekonomiko mirraoa duten adin guztietako erostenentzat.

ZATOK IKUSTERA:

**IROVI, S.A.** Citroën kontzesionario ofiziala:  
Industrialdea z/g. Tel.: 943 65 18 42. Anoeta / Tolosa

**CITROËN**

# kutxa

## SANTA LUZIA GARAGEA

Grua zerbitzua 24 orduetan

943 653 491	943 653 874
943 653 985	943 806 020

Santa Luzia, 1 TOLOSA

**Martin Eceizabarrena**

Instalazio erreforma  
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 672 445  
Mobiila: 608 774 822

## SANTAMARIA

Ortopedia

- Garabi eta aukli elektrikoak erakusteka.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610 • TOLOSA

# SHANTI

## kirolak

Rondilla, 11 bis • Tel.: 943 674 074 • TOLOSA



# Euskararen Nazioarteko Eguna

GALTAUNDI EUSKARA TALDEAK EKIMEN DESBERDINAK ANTOLATU DITU

Erredakzio Batordea

Lehenengo Euskararen Eguna 1949ko abenduaren 3an ospatu zen, hala Euskal Herrian nola diasporarako zenbait herritan ere. Orduan, espainiar estatuko egoera politikoa tarteko, Euskararen Egunaren ekitaldiak Iparraldean eta Ameriketako hainbat lekutan burutu ziren. Jatorrian, ospakizun hau Eusko Ikaskuntzaren sorrerari estu loturik dago.

## AZAROAK 29 TRIANGULOAN ZITA

Aurten ere, egun hau ospatzeko, Galtzaundi Euskara Taldeak ekimen desberdinak antolatu ditu.

Lehenik eta behin, azaroaren 29an, Tolosan azoka eguna dela aprobetxatuz, Tolosako Triangulo plazan, talo eta sagardo dastaketarekin hasiko genuke eguna,

**Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko, azaroaren 29an, ekimen desberdinak antolatu ditu Galtzaundik. Triangulo plazan giro jatorrean Taloa eta sagardoa dastatzeko aukera egongo da.**

Talo dastaketa goizeko 10:00etan hasi eta 14:00ak bitartean izango da, eguerdiko 13:00etan, Uxue Fernandez eta Agin Rezola bertolariek gai libreko saioa eskainiko dute. Goizean, trikitilariak giroturik, Udaberri dantza taldeaz gozatzeko aukera izango da. 12:00etan dantza saio txikia emango dute plazan, ondoren kalejiraran alde zaharrean murgilduko dira eta bukatzeko, plazara gerturatuko dira azken saioa eskaintzera.

## ABENDUAK 3 HITZALDIA

Abenduaren 3an berriz, Joxerra Garziaren “zer arraio, kristo, demontre... egin behar dugu euskararekin?” hitzal-


dia izango da arratsaldeko 18:00tan Tolosako Udaleko Pleno Aretoan.

## KONTSEILUAREN 10. URTEURRENA

Kontseiluaren 10. urteurrenari amaiera emateko, “Pauso bat harago” egiteko deia zabaldu dute eta urrats hori egiteko hitzordua, abenduaren 13an, BEC-en izango da. Bertan, Kontseiluaren ibilbidea azaltzeaz gain, “euskaraz bai”ra iristeko proposamena egingo digute. Dakizuenez, Kontseiluko leloa sorreratik “bai euskarari” izan da, horren bilakaera proposatu dute oraingoan, hau da, “euskaraz bai”. Ekitaldi jendetsua izatea espero da eta horretarako, Galtzaundi Eus-



kara Taldeak, autobusak antolatu ditu. Ekitaldia arratsaldeko 18:00tan hasiko da eta autobusak 15:30tan aterako dira Tolosako tren geltokitik. Izen ematea Galtzaundiko egoitzan egin behar da. Autobuseko gastua, bazkide ez direnentzat, 11 eurotako izango da eta bazkide direnentzat berriz, 8 eurotako. Anima zaitzete!



# Herrietan, zer berri?

HAINBAT HERRI ALDIZKARI AURKI DITZAKEGU ESQUALDEAN BARRENA

Gorka Otaegi

**E**skualdean herri aldizkari ugari daude. Horieta bat da dagoeneko 36. alea argitaratu duen “Berriak berri” Anoetako aldizkaria. Hau, Anoetako udalak kaleratzen du hiru edo lau hilero. “Herrian talde bakoitzak berea egiten zuela ikusi genuen, beste elkarteek egiten zutenaren berri izan gabe. Horregatik, garrantzitsua iruditu zitzaigun herriko taldeak eta udala zertan ari ziren herriarrei jakinaraztea. Ideia ona iruditu zitzaigun hiru edo lau hilabetez behin, bakoitza aurre-

**Eskualde beraren parte izan arren, herri bakoitzak bere izaera du: txokoak, pertsonaiak, elkar-teak, historia, txutxumutxuak... Horiek guztiak jorratzen dituzte elkarren artean herriak bezain desberdinak diren herri aldizkariak. Bertakoak informatzeaz gain, etorkizunean herrien gaur egungo historiaren berri ematea dute xede.**

ra eramaten ari zen proiektuen berri ematea”, aipatu digu udaleko kultur teknikariak, Tere Sotok. 1996. urtean gertatu zen hau. Orduan eskuratu ahal izan zuten anoetarrek lehen alea.

Urtebete beranduago kaleratu zuen Altzoko udaleko kultur batzordeak lehen urtekaria,

hots, 1997an. Aurrez, batzordea eguberrietan “Olentzero jakin-minez” lelopean zenbait ekitaldi antolatzen aritzen zen. “Horren karietara, batzordekide batek aldizkaria sortzearen ideia bota zuen, eta horri heldu zitzaion (...) Euskararen alde egiten diren ekintza guztiak bezala, hau ere beharrez-

kotzat jo genuen”, dio batzordeko kide den Antton Iztuetak.

Alkizako eliza berritzeko lanak oroitzen ditu Peio Joxe Aranburuk, “Oilategitik” aldizkariaren sorrerari buruz galdetzean. Hauekin batera kaleratu baitzuen alkizarrak herriko historia biltzen duen liburua. “Alkizako historia herritarrei gerturatzeko, elizako obrak zirela eta osatutako taldeari jarraipena emateko eta herrira kanpotik etorritako jendea ongi integratzeko” erabaki zuten aldizkaria sortzea. Aranburuk eta herriko zein kanpotik etorritako beste hiru lagunek osatu zuten hasierako lan taldea. “Hasieran, zailena dirua


(hurrengo orrian jarraitzen du)

**Annetxe**  
LORATEGIA CB  
Etxebarru zein kalerako lorak.  
Lorategi lanabesak.  
Lora legor eta apaindura tresnak.  
Santa Luzia Auzoa, 1 - Tel.: 943 673 118 - TOLOSA

**Saldias Miguel**  
CORREDURIA DE SEGUROS  
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA  
N. D.G.S. J.1759  
SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea  
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462  
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

- Bizi-asegurua
- Kotxe-asegurua
- Istripuak
- Gaisotasunak
- Ospitalizazioak
- Subsidioak
- Lan-istripuak
- Enpresa txiki eta ertainak
- Erantzukizun zibila
- Etxe-asegurua
- Denda-asegurua
- Erretiroak
- Inbertsio fondoak

**ALDATZ Kristaldegia**  
Mota guztiako beirak  
Bainu eta dekoraziorako  
ispiluak  
Beirate artistikoak  
Dubxa-ixiturak  
Tel./Faxa: 943 674 845  
kristaldatz@euskalnet.net  
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA



**BENTA ALDEA**  
JATETXEA  
Tel.: 943 654 079  
ANOETA-TOLOSA BIDEAN

**ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA**  
Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak  
Iurre, 4 (Mustad) 943 672 300  
Amaroz, 21. 943 675 513  
20400 TOLOSA

**(aurreko orritik dator)**

lortzea izan zen, gure aldizkaria erabat autonomia delako. Hala ere, azkenean lortu genuen Udalaren diru-laguntza". Geroztik, urtero kaleratzen dute aldizkaria.

Berastegin, Aldin kultur-elkarteko kideak dira urtero herriko aldizkaria ateratzeaz arduratzen direnak. Paki Masak dioenez, "herrian asetu gabeko beharrak zeudela uste genuen batzuk elkartu eta zenbait ideia bota genituen. Ideia horietako bat izan zen aldizkaria sortzearena". Berrobiko "Berrobi berri" hartu zuten abiapuntu modura. Beraiekin harremanetan jarri eta bi aldiz pentsatu gabe, elkar-teko orduko hamabi partaide-



Abaltzisketako Txalburu Eskolako gurasoak.

ak aldizkarirako edukiak pentsatu eta lantzen hasi ziren. "Ideia polita iruditu zitzaigun, esperientzia polita". Beste zenbait herritan ere egiten zenez Berastegin ere antzeko zerbait egitea bururatu zitzaieiela gogoratzen du Maria Jesus Labaieinek. Horrela sortu zen "Aidanen" aldizkaria duela bost urte.

Herri eskolek ere, badute zeresanik aldizkariak egiteari buruz. Hori da hain zuzen Abaltzisketako kasua. Maddalen Iztueta, Garbiñe Téletxea eta Arantxa Tolosa gurasoek azaldu digutenez, 2004/2005 ikasturtean herriko eskola berrirei zuten, aurrez itxi zutela 30 urte bete ziren ikasturtean hain zuzen.

"Hori zela eta, irakasle, ikasle, guraso eta udalak elkarrekin zerbait berezia egin nahi izan genuen (...) Lehen aldizkaria berezia izan zen: koloretan, urtean zehar ekintzak burutuz... Gaur egun gehiago du eskola-aldizkaritik. Lehen "Salbatxiskero"-a zabalagoa izan zen".

**HERRITARREK HERRITARRENTZAT EGINA**

Anoetako gizarte eragileek hiru-lau hilabeteko eskutitza edo emaila jasotzen dute hurrengo "Berriak berri" argitaratzea nahi duten testua bidaltzeko epea noiz amaitzen den adierazteko. Horrela, talde bakoitzak testua igorri eta aldizkarian bere atala izaten du: Udaleko saila, Anoetako AHT Gelditu elkar-

tzen da duela zenbait urte". Gainerako prozesu guztiaz "Oila-tegi kultur elkartea" arduratzen da. "Aldizkari librea da, elkar-teak ez du inolako editorial edo linearrik jarraitu". Alea ateratzeko lehen bilera otsaila inguruan egiten dute. Bilera honetan, aurreko urteko alearen balorazioa egin eta aterako duten hurrengoan zein gai jorratu zehazten dute. Gaiak zehazteko orduan, bakoitzaren ideiak kontuan hartzen dira: urtean zehar bakoitzak bilatu duena, gai interesgarriak... Behin aldizkaria diseinatuta, lanak banatzen dituzte. "Jende askok parte hartzen du aldizkarian. Era askotako lankidetzak eta kolaborazioak izaten ditugu: Batzuek artikulua idazten dituzte, beste



Berastegin Aldin kultur elkarteko kideak.

batzuek jendea bilatu... Bilere-tan urtero-urtero dozena erdi bat biltzen garen arren, argazkiak ateratzen dituztenak, gaiak izendatzen dituztenak, banatzaileak... kontuan hartuz, hoge bat lagunek hartzen dute parte. Beti egon da aldizkaria herritarren parte hartzeari irekita", aipatzen du Aranburuk. Atalei dagokienez, urtetik urtera aldatzeko badaude ere, badira zenbait, aiez ale errepikatzen direnak. Esate baterako, argazki-egindako urteko kronika, Alkizako elkarrekin atalak, "Atzo-atzoko Alkizako argazkiak", herriko ahozko toponimiaren inguruko kontuak, herriko pertsonaiak eta Alkizako baserrien

fitxa historiko eta argazkiak.

Antzeko gaiak jorratzen dituzte Altzo eta Berastegin herri aldizkariak ere. Hauetan ere, herritar orok idatz dezake. Lehenengoaren arduraria herriko kultur batzordeak daroma: "Kultur batzordean zortzi bat biltzen gara, baina gero herritarrei laguntza eskatzen diegu. Normalean beti egoten da jendea laguntza emateko prest" dio Leire Olano zinegotziak. Herrian urtean zehar izan diren ekintza eta gertakarien berri jasotzen duen Altzoko urtekaria maizta eta uztaile artean argitaratzen dute, Berastegin "Aidanen" eta Abaltzisketako eskolako "Salbatxiskero" a legez. Horretarako, aurreko urteetako aleetan parte hartu duen

Izena	Herria	Azken alea	Maiztasuna	Egilea
Salbatxiskero	Abaltzisketa	4.a	Urtekaria	Txalburu Eskola
Txotx!	Albiztur	1.goa	Ez da zehatza	Albizturko Herri Eskolak
	Alegia			
Oilategitik	Alkiza	8.a	Urtekaria	Oilategitik K.E.
Urtekaria	Altzo	10.a	Urtekaria	Altzoko Kultura Batzordea
	Amezketak		Hiruhilabetekaria	Udalak
Berriak berri	Anoeta	36.a	Hiruhilabetekaria	Udalak
Aidanean	Berastegi	5.a	Urtekaria	Aldin kultur elkartek
Berrobi berri	Berrobi	9.a	Urtekaria	Herritarrak

emango diegu. Hauek arduratuko dira edukiak prestatu eta muntaia egiteaz".

Behin aldizkariak eginda daudela, hauek inprimategi-tara eramaten dira. Hauetatik ateratzen den tirada aldatu egiten da herri aldizkariaren ara-

prozesa horrekin batera, aldatuko dira edukiak prestatu eta baita formatoari dagokionez ere. Hauek nabarmenak dira, esaterako, Anoetako "Berriak berri"-n: "Lehen "Berriak berri" beste era batean egiten genuen. Triptiko bat



Altzoko kultura batzordeko kideak.

bera, noski, biztanle kopuruak ere eragin nabarmena baitu. Adibidez, 150 bat "Salbatxiskero" kaleratzen dituzte urtero Abaltzisketan. Altzon, Anoetan, Berastegin eta Alkizan, berriz, 600-800 inguru. Zenbait kasutan gainera, jendearen eskaria dela medio, tiradak igoera nabarmena izan du urtetik urtera. Alkizan esaterako, bikoiztu egin da. Aldizkari hauek herritarren eskutara iristeko, etxeko banaketa egin edota leku publiko, denda, bulego...etan uzten dira herritarrek har ditzaten.

Herri aldizkariok, orokorrean, gazteak badira ere, sendotzen ari dira. Eta sendotze

zen. Urte asko generamatza-nez formato berarekin, bilera bat egin, proposamenak jaso eta atal berriak sortu ditugu". Altzon atera zen lehen urtekaria zuri beltzean izan zen, "orain kolorea sartu diogu (...) hasiera hartan guztia gure baliabideekin egiten genuen, ordenadoreak orduan hasi ziren etxetara sartzen, lehenengoan zutabe bakarrean idatzi genuen testua...". Alkizan, Aranburuk gaur egungo "Oilategitik" aldizkarietan hasierakoan baino askoz ere argazki gehiago ikus ditzakegula aipatzen du, jendeak edukiak askoz ere errezago barnera ditzan.

**ETORKIZUNEAN HERRITARREK ERREFERENTZIA**

Elkarrizketatu ditugun aldizkari guztietako partaideek azpimarratu dute aldizkari hauek egungo herritarrek herriko kontuen inguruan informatzeko duten beharra asetzeaz



Tere Soto, Anoetako kultura teknikaria Berriak Berri aldizkaria erakutsiz.

gain, etorkizuneko historialari eta herritarrentzat oso baliagarriak izango direla atzera egin eta gaur egungo bizimoduari buruz informazioa eskuratzeko. Izan ere, urtean zehar gertatutako guztiaren "memoria" modukoa ere badira. Ezau-garri komun hauek gain, aldizkari bakoitzak baditu bere nabardurak. Altzon, esaterako, "herriko jendeak euskaraz irakurtzeko ohitura bultzatzea, parte hartzea, idaztea... Azken finean herritarren artean asmo komun bat eraikitzea eta sozializazioa bultzatzea bilatzen dute", aipatzen du Jexux Muruak. Herritarrena ez, baina "Salbatxiskero" k eskolako

partaideen sozializazioa bultzatzen duela esan dezakegu: "Gurasoak, ikasleak, irakasleak... busti eta beren arteko lotura bat egiten du aldizkariak" diote elkarrizketatutako gurasoek.

Etorkizunari ere begiratzen diote herri aldizkarietako arduradunek, nola ez. Aurrera begira gauditu beharko dituzten erronkei buruz galdegitean, aldizkariak egun ateratzen diren maiztasunarekin ateratzen jarraitzea nahiko erronka handia dela azpimarratzen dute guztiek. Dena den, etorkizunari begiratu ahal izateko, gazteen inplikazioa ezinbestekoa da. Gazteek gustura irakurtzen dituzte aldizkariak, izan ere, hauetako atal batzuetako pro-

tagonistak izaten dira zenbaitetan. Idatzi ere idazten dute zenbaitetik. Dena den, aldizkariaren koordinazioa daraduten taldeen bileretan hauen presentzia faltan botatzen dute. Honela azaltzen dute egoera Altzon: "Jende gaztea sartzea da erronka nagusietakoa. Jende honek badu kultura, badu idazteko ohitura, badu baliabideak... Transmisioa egitea da erronka nagusietakoa".

Horrelakoak dira eskualdeko herri aldizkariak: Herritarrek herriarengatik muxutruk egiten dituztenak, herriak dinamizatzeke tresna paregabeak. ■



ALEGIA >>> 2010EAN BERROGEHITA HAMAR URTE BETEKO DITU TXINTXARRI ABESBATZAK

# Ozen entzuten da Alegiako txintxarrien doinua

*Pasa den azaroaren 16an XI Txintxarri Eguna ospatu zen Alegian. Hau irakurrita, batek pentsa lezake herriaren eta herritarren eguna izan zela, gauza jakina baita alegiarrak txintxarriak direla. Baina ez litzateke guztiz zuzen ibiliko burutazio horrekin, izatez, Txintxarri Eguna Alegiako Txintxarri Abesbatzaren eguna baita. Hala nahi duten herritar guztiak parte hartzen dute egun horretako ospakizunetan, eta abesbatzako kide ez diren askok ere festa giroan igarotzen dute eguna. Baina Txintxarri Eguna izen bera daraman abesbatzaren eguna da, bereziki, bere bazkideei eskainia.*

Arnaia Goikoetxea O.

Aipatu bezala, hamaikagarren edizioa izan du aurtengoa. Lehenengo Txintxarri Eguna 1998ko maiatzaren 10ean ospatu zen. Garbiñe Orbegozo abesbatzako zuzendariak kontatu digunez, urte askotan zehar abesbatzako zuzendari izandako Joxe Gastesirena izan zen egun hau ospatzen hasteko ideia. "Bilera batean geundela bota zuten proposamena Joxek. Hasiarako asmoa abesbatzarekin batera herriko musikariek ere kontzertuan parte hartzea zen, eta lehenengo hiru urteetan halaxe egin zen. Gero, abesbatzak bakarrik jarraitu zuten emanaldi hori eskaintzen".

Esan daiteke Txintxarri Eguna helburu bikoitz batekin sortu zela. Alde batetik, Txintxarri Abesbatza kultur elkarte moduan antolatuta dagoenez, bertako bazkideei eskaintako eguna izan

nahi zuen, eta bestetik, abesbatzari urtero bere eguna izateko aukera eman nahi zitzaion. Horrez gain, egun horrek garai batean abesbatzako kide izandakoekin elkartzeko ere balio zezakeen, horiekin harremana mantentzeko.

## ALEGIAKO TRAPERARI KANTUAN

Lehenengo Txintxarri Eguna udaberriko egun batez ospatu zen, baina azken urteetan udaberriari udazkenak lapurtu dio abesbatzaren eguna, eta orain



Txintxarri abesbatza 60. hamarkadan.

herrian antolatzen den Udazken Kulturalaren barruan ospatzen da. Esan bezala, aurtengo Txintxarri Eguna pasa den azaroaren 16an izan zen. Ohiko legez, Meza Nagusia abestu ondoren, Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek kontzertua eskaini zuten elizan bertan. Haur abesbatzak hiru kantu interpretatu zituen Tolosako Idoia Iraola zuzendari gaztearen gidaritzapean. Hasteko, Xabier Sarasola beasaindarrak moldatutako *Uso zuria* abestu zuten. Segidan, *The Beauty and the Beast* (Ederra eta piztia) filmaren abestia

etorri zen, Alan Menkenek konposatua. Eta bukatzeko, Afrikako doinu tradizional bat eskaini zuten, *Kokoleoko*. Kantu guztietan Aitor Iraola alegiarra aritu zen pianoan.

Helduen abesbatzak ere estilo askotako kantuak eskaini zituen Garbiñe Orbegozo alegiarraren zuzendaritzapean. Jose Luis Ansorenak moldatutako *Agurra* kantatuz ekin zioten emanaldiari. Ondoren, bi estreinaldi etorri ziren: Javier Busto hondarribiarraren *Shorter's gloria*, eta Bustok berak moldatu-

tari, garai hartako Alegiako traperari eskaintzeko. Iparragirre askotan etortzen zen garai hartan Alegiara, bertakoa baitzen gerora emazte izango zuen Anjela Kerejeta. Xefe Balerdi izan zen Batista Txintxarri Egunean, eta herriko hainbat musikari izan zituen bidelagun: Mariaje Rekondo pianoan, Elena Alustiza eta Izaskun Lopetegi txistuan, eta Rikardo Intxausti atabalarekin. Kontzertuaren osteko ohiko bazkaririk ere ez zen falta izan Txintxarri Egunaren XI. edizioan.



Txintxarri abesbatzak 35 kide ditu.

aldiz, eta gauregungo bizimoduarekin ez da erraza horretarako denbora hartzea".

1960. urtean sortu zen Txintxarri Abesbatza, Joxe Gastesiren eskutik, eta hasieratik emakumez eta gizonezkoen osatutako abesbatza izan da. Dena den, aipatzekoa da, 60ko hamarkadaren aurretik bazela Alegian gizonezkoek bakarrik osatutako beste abesbatza bat, Lukas Guridik zuzendua eta elizako koro bezala sortu zena.

Esan bezala, ordea, gaur egun ezagutzen dugun Txintxarri Abesbatzak orain ia berrogeita hamar

urte hasi zuen bere ibilbidea. Hasiar hartan berrogeita bost lagun inguruk osatzen zuten. Abesbatzaren lehen hogeita hamar urteetan Joxe Gastesi izan zen zuzendari; 80ko hamarkadaren hasieran ez eta gizonezkoen osatutako abesbatza izan da. Dena den, aipatzekoa da, 60ko hamarkadaren aurretik bazela Alegian gizonezkoek bakarrik osatutako beste abesbatza bat, Lukas Guridik zuzendua eta elizako koro bezala sortu zena.

Urte hauetan guztietan Txintxarri Abesbatzak, herrian abes-

teaz gain, gure mugetatik kanpo ere zabaldu ditu bere doinuak. 1985ean Suitzan eta Alemanian izan zen, XXV. urteurrena ospatuz, eta lau urte geroago berriz ere Alemaniara itzuli zen. "Bi bidaia hauek Alemaniako Nüremberg hirian bizi den Joakin Agirre alegiarrari esker egin genituen", azaldu digu Garbiñe. Hasiarako bi irteera horiez gain, beste hainbat leku ere bisitatu ditu abesbatzak: Paris (1987), Britainia (1994), Llanes (Asturias, 1998), Galizia (2000), Montlieu-La-Garde

(Frantzia, 2001), Begues (Bartzelona, 2003) eta Almazán (Soria, 2006).

Gaur egun hogeita hamabost partaide ditu abesbatzak, hamahiru gizonezko eta hogeita bi emakume, 16 urtetik 62ra bitartekoak. Azpimarratzekoa da alegiarrak ez diren partaideak ere badirela abesbatzan: Hernani, Andoain, Urnieta, Añorga, Ikaztegieta, Lizartza, Amezketeta eta Tolosatik etortzen dira abestera. "Ez da erraza gaur egun koro batean abestu nahi duen jendea aurkitzea", aitortu du Garbiñe. "Jendeak bestelako lehenetsun batzuk ditu, eta abestea badirudi ez dagoela 'modan'. Zentzu horretan, Txintxarri Abesbatzak asko zor dio Txintxarri Txiki Abesbatzari, bertan abesten duten gazteak, adinean aurrera joan ahala, helduen abesbatzara igortzen baitira. Dena den, orokorrean, eta lehen aipatu bezala, gaur egun abesbatza osatzen duten hogeita hamabost abeslarietako eskerrak eman behar zaizkie euren konpromisoagatik".

## MENDE ERDIA KANTUAN

2010ean berrogeita hamar urte beteiko ditu Txintxarri Abesbatzak, eta urtemuga garrantzitsu horri begira hainbat asmo badi-tuztela azaldu digu Garbiñe Orbegozok, horien berri aurrerago emango badute ere. Garbiñe urte hauetan guztietan abesbatzan abestu duten eta oraindik ere abesten duten guztien esfortzua eta konpromisoa nabarmendu eta eskertu nahi izan ditu. "Abesbatzan kantatzea ez da kontzertuetan agertokira igotzea bakarrik. Astero-astero entseguetara etorri behar da, gure kasuan astero bi

## Galtzaundiko kultur ekintzak

Azaroak 20, osteguna:

Idoia Sanchez  
ipuin kontalaria

Altzoko  
liburutegian  
arratsaldeko  
17:30tan.

Abenduak 5, ostirala:

Pello  
Ramirez

Bonberenean  
gaueko 22:30tan.

Abenduak 6,  
larunbata:

Durangoko  
Azokarako Autobusa

10:00 Tolosan  
10:10 Billabonan  
10:20 Andoainan  
Itzulera: 19:00tan Durangotik  
Izen ematea: Galtzaundi eta Aiurriko bulegoetan



**ANOETA >>>** AZAROAREN 28AN AURKEZTUKO DUTE "ANOETAKO HERRI-SINESMENAK HISTORIAN ZEHAR" LIBURUA SAN JUAN BATAILATZAILEAREN PARROKIAN

# Anoetarren herri-sinesmenak aztergai

Anoetarren herri-sinesmen eta pentsamoldeek XX. mendean izan duten bilakaera aztertzeko ahalegina egin du Aranzadi Zientzia Elkarteak Anoetako Udalaren laguntzaz argitaratu duen herriko bigarren liburu monografikoa. "Anoetako herri-sinesmena historian zehar" liburua azaroaren 28an aurkeztuko dute Anoetako San Joan Batailatzailearen parrokian.

Mikel Errazkin Agirrezabala

(Aranzadi Z.E.)



Misioak Anoetan 1940ko hamarkadan. (Bideondo baserria).

**X**X. mendean, Anoeta bizimodu herritarretik bizimodu hiritarra igaro da lehenik eta ondoren, bizimodu globalizaturatu. Honek gizarte moldeetan aldaketak nabariak bultzatu ditu: erlijiotik zientziara, landa guneeetatik ingurune urbanora, nekazaritza-ekonomiatik industria-ekonomiara etab. Honela, kultura tradizionalak eta herri-sinesmenak bilakaera bat izan dute. Herri-kulturak aldaketak eta galerak izan ditu. Denborak, ez du barkatzen, eta garaian garaiko barne nahiz kanpoko eraginez, pentsamoldeak, nortasunak, herri baten ezaugarriak... azkenean, moldatu egiten dira.

Igaro diren sasietako usadio eta ohiturekin bizi izandako azken pertsonen testigantzak jasotzeko, ezkutuan egondako argazkiak biltzeko eta dokumentu zaharrak arakatzeko saiakera izan da herriari buruz idazten den bigarren liburu monografiko hau, gizarte tradizional hartako gordailu diren ziklo bio-

logikoa amaitu aurretik ziklo kultural bat dokumentatzearena, alegia.

## HERRI-SINESMENAK ESPAZIOAN, DENBORAN ETA TESTUINGURUAN

Tolosalde Historia bilduma-ko hamahirugarren ale honetan, Anoetako eliza-ondarea aztertu da ikuspegi eta diziplina anitzetik. Honela, anoetarren ondare inmateriale eta pentsamoldea atalka aztertu aurretik, beharrezkotzat jo da guzti horrek duen espazioa aztertzea. Era honetan anoetarren pentsamoldea eta herri-sinesmena XX. mendean zehar non (espazioa), noiz (denbora) eta nola (testuingurua) bilakatu den azaldu da. Lehenik eta behin herritarrek osatutako komunitateak elizarekin izan dituen erlazioen bilakaera historikoa arakatu da. Bigarren zatian eliz ondarearen arlo materiala ikertu da; errepresentazio artistiko ezberdinak alegia. Hirugarren eta azken atalean aldiz, ondare etnografikoan murgilduz

komunitatearen erlijiozkotasun herrikoien agerpenak deskribatu dira. Izan ere, Anoetako gizarte tradizionala ulertzeko erlijioaren herri sinismena bitarteko ezinbestekoa da.

Egun Anoeta deiturarekin eza gutzen dugun gune honetako biztanleak San Joan Batailatzaile elizak mugatutako gunearen inguruan elkartu ziren, hark eskaintzen zuen babesean aurreneko komunitate espirituala sortuz. Denborak aurrera egin ahal, elizaren irudiaren babespean sortutako talde hori lurralde-esparru berri bat zehazten hasiko zen, non behar espiritualetan erantzuteko biltzen ziren herritarrek beren bizimodua antolatzeke eremua ezarriko zuten. Lotura modu horrek, haatik, beste elkartzeko modu bati egin zion bidea, eta honetan errealitate sozio-territorial berri baten partaide izatea nagusitu zen: alegia, herritarren komunitatearen partaide izatea.

Komunitateak modu elkartuan bere lurraldea gobernatze-

ko egitura kontzejua zen. Komunitatea gobernatzeko modu honen helburua autosufizientzia ziurtatzea izan zen beti, eta aukera zegoenean, komunitatearen baliabideak eta ondasunak handitzea. Jardunbide horrek anoetarren identitateaz hitz egiteko aukera eskainiko zuen, partaideen patua ezin baitzitekeen bereizi haiek babesten zituen komunitatearenetik.

## ERLIJIOAREN AZTERKETA HERRIKOITASUNETIK

Erljioa, gizartearen izakeran osagarritzko elementua izan da historian barrera eta kultur gertaera ukazina. Herrien ondare kulturalak mundu ikuskera erlijiosoak izaten ditu hezurmami-tzaile, balore sistemetan islatuak, eta baita arte sorketan, gizarte antolakeretan, herri agerikari eta tradizioetan zein festa eta egutegietan. Horregatik, erlijioaren eduki funtsezkoak lagungarri onak dira Anoetako gizarte antolaketa interpretatzeko. Izan ere erlijioaren funtzioa

komunitate bateko kideen bizitzaren azken zentzuari buruzko galderari bere inplikazio etiko guztiakin erantzuna ematen saiatzea izan da.

Erljio ezberdinak historian zehar sinesdunei bere gaitasunen eta bere ekintzen kontzientzia har dezaten "giltza" ulergarri batzuk eskaintzen saiatu izan dira. Pertsonen arteko harremanak sortzen eta gizartearen erroztzen laguntza; mezu erlijioso ezberdinak baloratzeke eta interpretatzeko gaitasuna ematea eta beraien ideia, sentimendu eta desirak adieraztera bultzatzea; eta, batez ere, ardatz nagusi bezala, Jainkoaren eta gizakien arteko harremana eta komunikazioa dela funtsezkoena erli-

**Izenburua:** Anoetako herri-sinesmenak historian zehar

**Egileak:** Juantxo Agirre-Mauleon, Mikel Errazkin Agirrezabala, María José Hernández eta Ana Isabel Hernández.

**Bilduma:** Tolosaldeko Historia bilduma, 13. zbk.

**Argitaratzaileak:** Anoetako Udala eta Aranzadi Zientzia Elkarte

heinean. Ikerketa arloa, beraz, gizatalde baten aktibitate sinbolikoaren fruitu den sinesmen eta errituen multzo bat da; taldeak berak sakratu edo erlijioso bezala kategorizatu dituenak. Herri taldeek, doktrina, arau eta erritual horiek onartu ahala dok-

errepresentatu diren erreparatu da. Igarobide-erritoak gizabana-koaren garapen sozialean burutzen diren hainbat trantsizio dira. Hau da, nerabegarotik helduaroa, ezkongaiarotik ezkontzara, talde edota komunitate bateko kide ez izatetik parte izatera...



Honela prozesu baten amaiera eta beste baten hasiera irudikatzen duten errito hauetan komunitatearen erre-pikatzen diren ekintzak burutzen dira, pertsonen jarraitu beharreko orden bat segitzen laguntzen dielarik; guzti honekin bizitzeko fase batetik besterako trantsizioan sortu daitezkeen zalantzen aurrean bizitza berari zentzua ematen zaio. Igarobide-erritoak berak dituen helburu nagusiez gain errito bakoitzak bere helburu propioak dituzte: jaiotze erritoetan komunitateko kide berriaren iragarpenaz gain honekiko komunitateak eskaintzen duen babesa islatzen da; ezkontza erritoetan komunitatearen sortu den unitate familiarren aurrean ernalkuntza erritoak erre-presentatzen dira edota hileta erritoetan komunitateko kide izan den horrekiko defentsa islatzen da. ■



Anoetako Mariaren Alabak kofradiako neskek. (Arginidegi baserria).

joaren fenomenoan eta gizakion bizitza historikoan ulertaraztea.

Alabaina, liburu honetan herrikoitasunaren ikuspuntutik aztertu da erlijioa, komunitate baten kultura adierazpenetako bat den

trina haietatik osotasunean eratorriak izan ez diren sinbolo eta erritua mantendu dituzte.

Herri-erlijiozkotasunari dago-kionean, batez ere Anoetan igarobide erritoak nora gauzatu eta

Igarobide-erritoak gizarte ez-industrializatuak bizitza sozialean ezinbestekoak dira, komunitatearen erritualetan burutzen direlarik. Hau da, ez dira modu indibidualen gertatzen.

**Zumardi**  
SEGUROS  
BILBAO

Aholkularitza  
integrala

Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877

**Beatriz**  
Dekorazioa  
Donostia - Tolosa

Donostia	Donostia	Tolosa
San Martin, 16	Garibai, 8	Rondilla, 11
943 425 886	943 420 259	943 670 615
943 420 187	943 430 947	943 671 149

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak (bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

**JANTZIAK**  
**OSKI**  
oinetakoak

Nafarroa Etorbidea, 11  
Tel.: 943 651 264 - TOLOSA



# Ereite

## Etorkinak gurean murgiltzeko lanean

2006ko abuztutik, Ereite Elkarte Multikulturala, etorkinak euskal gizartean, eta espreski, Tolosaldean integratu daitezzen ari da lanean. Horretarako tresna bat darabil: "Murgilduz: sare sozialak sortzeko tresna". Ereitek, dagoeneko fruituak ematen ari den proiektu hau aurkeztu nahi die eskualdeko herritarrei.

**M**urgilduz egitasmoa helburu jakin batzuekin jarri zen martxan.

Funtsean, etorkinei euskal gizartea ezagutaraztea eta bertako hizkuntza, euskara, hitz egiteko eta ulertzeko bidean lehenengo pausoak emaraztea dira helbururik behinenak. Honekin batera, etorkinen komunitatearen ikuskera positiboa sortu eta hedatu nahi da harrera-

saiatzen dira Ereiten. Era honetan, ehungile egokiak dira eskualdean denbora daramaten eta integratuak dauden etorkinak.

Aipatutako helburuak lortzeko bidean, hiru ildo ezberdinetan ari dira lanean:

### EUSKARA IKASTEKO DOAKO ESKOLAK

Bai pertsona helduei eta bai lehenengo zein bigarren hezkuntza egiten ari diren gazteei zuzenduriko eskolak dira. Jendeak eskola hauetan

uztailean Lehenengo Hezkuntza amaitu duten ikasleentzat eta Bigarren Hezkuntza egiten ari diren gazteentzat antolatzen duten ikastaroa. Ekimen honekin, gazteek kurtsuoz zehar euskararekin duten kontaktua opor egunetan ez etetea lortu nahi da. Ikastaro honetan "Boga" programa multimedia erabiltzen dute, gazteei euskara irakasteko modu dibertigarri eta entretengarri bat emate aldera.

### ESKUALDEAN EGITEN DIREN OHIKO EKINTZETAN ETORKINEN PARTE HARTZEA SUSTATZEA

Ereite Elkarteko kideen usitez, bertako gizartean etorkinen integrazioa lortzeko, ezinbestekoa da ohiko ekimen eta ospakizunetan parte hartzea, era berean, bertako biztanleengan etorkinekiko jarrera positiboa sortu eta hedatzen baita. Modu honetan, aurten lehenengo aldiz, Galtzaundi Euskara Taldeak uztailean antolatzen duen ludotekan parte hartu dute elkarteko kideen haurrek. Honetaz gain, urriaren 5an Iru-ran ospatutako Kilometroak jaian ere lagundu zuten. Hurrengo ekimena, abenduaren 3an ospatzen den Euskararen egunaren inguruan pres-tatu dute.

### EUSKAL HERRIA EZAGUTZEKO IRTEERAK

Harrerako herrian integratzeko zer hobeto herria

bera ezagutzea baino. Hori pentsatuta, Euskal Herriko txoko ezberdinetara hainbat irteera egin dituzte, etorkinak euskal kultura eta geografiatik gertuago sentitu daitezzen. ■

### Euskararen egunaren inguruan Ereitek prestatutako egitaraua

#### - Azaroak 28

Babel Mundua, antzezlan Vuela Bonita Korporation antzerki taldearen eskutik.  
Lekua: Leidor.  
Ordua: 18:00.

#### - Abenduak 3

Idoia Sanchez ipuin kontalaria.  
Lekua: Errota Haur Liburutegia.  
Ordua: 18:00.

#### - Abenduak 5

Hitzaldi-eztabaida, Kike Amonarriz eta Xabier Aierdirekin.  
Gaia: Euskara eta etorkinak.  
Lekua: Tolosako Errota Haur Liburutegia.  
Ordua: 18:30.

Afaria. Sarrerak Iratxo tabernan eta Triangulo Kafetegian daude salgai (26 euro) abenduaren 2ra arte.  
Lekua: Uzturre Sagardotegia.  
Ordua: 21:00.



ko herrian, Tolosaldean. Horretarako, beste gauza batzuen artean, bertako biztanleentzat garrantzitsuak diren jai eta ospakizunetan parte hartzeko deia egiten dute etorkinen artean. Bestalde, integratze bide zail horretan langunariak diren sare sozialak ehuntzen

izena eman dezan animatzeko era ezberdinetako erraztasunak eskaintzen dituzte: Esate baterako, 7 urte baino gutxiagoko semeak dituzten etorkinentzat haurtzaindegi zerbitzua jarri dute, euskara ikasteko eskolatan dauden bitartean haurra bertan utzi dezaten.

Alor honetan, aipagarria da



## Jose Luis Rebordinos, guztiaren gaineratik zine ikuslea

HILAREN 22AN LEIDORREN EGINGO DEN BELDURREZKO ETA FANTASIAZKO ZINE MARATOIRA JOATEKO GONBITA LUZATU DU REBORDINOSEK

Leire Zubeldia

### Noiztik eta norengandik datorkizu zinemarako zaletasuna?

Zinemara joateko afizioa txikitatik datorkit. Nire amonak eramaten ninduen zinemara. *El Infantil* izeneko haurrentzako saioa egoten zen igandero. Hor ikusi nituen nire lehenengo filmak. Gerora konturatu nintzen benetazko harribitxiak zirela. Hamar urte inguru izango nituen. 1971. urteaz hitz egiten ari naiz. Handik zazpi urtera, hamazazpi urte nituenean, lagun talde bat bildu eta Oreretako King-Kong zine klub-a sortu genuen. Hemen des-

**Oreretan jaio, eta Donostian urte batzuk igaro ondoren, Gaztelun bizi da egun Jose Luis Rebordinos. Txikitik bere herriko aretoan haurrentzako filmak ikusten zituen garaitik du zinearen arrabarruan. Oreretako King Kong zine klub ospetsua sortu eta bertan lan egin eta gero, Donostia Kulturaren zinemaren arduradun bezala hasi zen lanean duela hemezortzi urte inguru. *Nosfedatu* zikloaren programatzailea izateaz gain, Donostiako Beldurrezko eta Fantasiako Zinema Astearen zuzendaria da, Donostiako Nazioarteko Zinema Jaialdiko zuzendaritza taldeko kidea ere bai eta bere sailak zuzentzen dituen beste zine jaialdien antolaketan parte hartzen du. Baina guzti horren gaineratik, zine ikuslea da Rebordinos. Hilaren 22an Leidorren egingo den Beldurrezko eta Fantasiako zine maratoiaren aitzakian hontaz eta hartaz aritu da Galtzaundirekin.**

kubritu nuen zer zen zinema saio bat antolatzea, zenbat zailtasun zeuden filme baten kopia bat lortzeko eta zer nolako ilusioa eragiten zuen jendeak ikusi nahi zuen hura jartzea. Zazpi lagun izango ginen. Dena guk egiten genuen: filmak kontratatu, kartelak jarri, aretoa alokatu... Diru laguntza eskatzen genuen eta dena gure esku geratzen zen. Botere hori genuen, nahi genuena programatzeko boterea. Oreretan zinema aretoak desagertzen joan ziren eta zine taldeko kide bakoitzak ere bere bidea har-

(hurrengo orrian jarraitzen du)



**(aurreko orritik dator)**

tu zuen. Aspaldi desagertu zen King Kong zine taldea.

**Beldurrezko eta Fantasiako zine jaialdia Erreterian egin zenuten lehenengoa da. Jaialdi hau zuzen pasatu zen Donostiara?**

Donostiako astearen jatorria Orereta da bai. Oreretan antolatutako gurenean beste ekimen bat



bezala antolatutako gurenean. Donostian beste era batera sortu zen Beldurrezko eta Fantasiako zinema astea. Zinema munduan ibiltzen ginen pertsonak bildu gintuzten lan talde bat osatu eta Donostian zine ez-komertziala programatzeko. Orduan, *Nosfedatu* programazioa sortu genuen. Hemezortzi urte inguru bete ditu ziklo honek, eta oraindik ere martxan jarraitzen du. Asteazkeneko izaten da Antzoki Zaharrean. Martxan jarri zenean izugarriko arrakasta izan zuen. Laurehun pertsona inguru biltzen zen aretoan. Baina konturatu ginen gazterik ez zela joaten. Orduan gazteak zine aretoetara erakartzeko for-

mula baten bila hasi ginen. Pentatu genuen, gazteei gehien gustatzen zaien generoa beldurrezkoa dela. Nik gogoan nuen Oreretan gazteen aldetik arrakasta izugarria izan zuela beldurrezko asteak, eta Donostian frogatzea animatu ginen. Azken batean, Donostiako Beldurrezko eta Fantasiako Zine Astea, gazteak erakartzeko trikimailu bezala hasi zen.

**Zinema afizioa izatetik ofizio izatera igaro izanak, zer suposatzen du zuretzat?**

Zorionez, ni batez ere zine ikuslea naiz. Eta espero dut ezaugarri hori bizi naizen artean mantentzea. Nire ustez, zine programatzaile batek ikuslearen izaera hori galtzen duenean dena galtzen du. Niri filmak ikustea gustatzen zait. Alde horretatik, zorte handia dut, filmak asko ikusteko aukera ematen didan lana baitaukat. Egia da, baita ere, filmak ikustea lana bilakatzen denean, eta egun batean 10 filme ikusi behar badituzu, ba plazer hori desagertu egin daitekeela. Nik ordea ez dut grina hori galdu eta urte-

ko uzta ikusteko ilusioarekin egoten naiz.

**Zinemaren munduan murgildurik daramazun denboran, zinemak izan dituen krisialdi ezberdinak ezagutu dituzu. Orain ere krisian dagoela esaten da...**

Gizarte honetan dagoen krisi orokorraren barruan, zinemak bere krisi propioa bizi du azken urte hauetan. Krisiaren arrazoietako bat pirateria da. Jendea ez da pirateriak zinemari egiten dion kaltearen jakitun. Pirateriaren ondorioz aretoetako ikusleen kopurua izugarri jaitsi da, filmak saretik jaitsi eta estreinaldia baino lehen ikusten baititu jendeak. Honekin batera, zinea baldintza txarretan ikusteko joera zabaldu du, nire ikuspuntutik, zine-aretoek eskaintzen baitituzte ikuslearentzako baldintza egokienak. Min handia egiten ari da eta hau era egoki batean arautu arte zinemak maldan bera jarraituko du. Konponbidea, filmak internetetik doan jaisteko aukera ematean datza, baina webgune horietako publikitateak filmeen produktoreei irabaziren bat emanaz, honek filmak egiten jarraitu dezan.

Zinemak egun duen beste arazo larria irudimenaren, ideien krisia da. Zine Asiatikoa dago, niri asko gustatzen zaidana, Latino Amerikako zinema ere oso indartsu dator ideien aldetik, eta Europako zinea oso ona da. Baina ezin dugu ahaztu, zinearen negozioa kontrolatzen duena Hollywood dela. Gauza txarrenak euren egin dituzte baina gauzarik onenak ere bai. Ezin dugu zine amerikarra gutxietsi, Baina orain, amerikarrak lehenengo filmeen kopiak edo "remakes"-ak ari dira egiten etengabe. Ideien krisia dago, istorioen krisia dago, gidioen krisia dago... Hori nabaritu egiten da eta amerikarrek badakite. Oso azkarrak dira. Zer egiten ari da zine industria amerikarra? Europa-ri begira jarri dira, non ideia

berritzaile pila eta istorio interesgarri mordoa egon arren, guzti hauek lantzeko baliabide nahikorik ez dagoen. Egoera baliatuz, amerikarrak Europako zine zuzendaririk onenak eramaten ari dira. Fresnadillo, Bayona... Eurentzako lanean ari dira.

**Herrietako zine aretoak ere krisian daude. Zein da honen erruduna? Zine areto handiak, edo udaletxeak, zinea sustatzen nahikoa saiatzen ez direlako?**

Lehen aipatu dugun zinearen krisiak gehiago eragiten du zine areto txikietan handietan baino. Lehen areto txikiak jende gutxi joaten bazen, krisi honekin estreinaldi gutxiago iristen dira, ikusle gutxiago hurbiltzen da eta jendea hiriburuetako multizineetara joaten da. Nik uste dut udaletxeen erantzukizuna dela hau. Udal agintariak zinean inbertitu beharra daukate. Euren herrian zinea izan nahi badute inbertsio bat egin behar da eta inbertitutako hori errentagarria izateko modua aurkitu. Prezio merkean kalitatezko programazioa eskaintzen bada, jendea bere herriko aretoetara joango da. Gastua da, bai, baina ariketa errentagarria da herriarentzat: Jendea herrian geratzen bada, herrian kontsumitzen du. Herri txikiak jakin behar dute, zinea herriarrek herrian errentetzeko tresna dela eta hau mantentzen jakin behar dute.

**Tolosak egin du apustu hori...**

Nik eredu bezala jarriko nuke Tolosa. Ez dut ehuneko ehunetan ezagutzen, baina kanpotik begiratuta, gauzak ondo egiten ari direnaren inpresioa daukat. Abono merkeak eskaintzen dituzte asteburuetako programazio komertziala eta ostegunetako zine klubeko saioak ikusteko. Tolosako zine kluba berriz, oso talde aktiboa da, irizpide onak dituzte filmak programatzekoan. Nabari da zinema-

ren munduan gertatzen dena ondo ezagutzen dutela. Zine klubaren eta zine komertzialaren nahasketa horrekin eta abono merke horiekin, ondo joango zaiela espero dut. Benetan uste dut, Tolosak hartu duen bidea jarraitu beharrekola dela.

**Tolosako zine klubeko kideek esana da, beraiantzat iparrorratz moduko bat izan zarela**

Berriro diot, niretzat iparrorratza Tolosako Zine Kluba da. Zinemarekiko pasioa bizirik mantentzen asmatu dute. Irizpideak argi dituzte programatzerako garaian eta oso ausartak dira. Iruditzen zait, zine klub bezala erreferente batean bilakatu dela. Beraz, Tolosako Udala animatu nahi nuke talde hau bultzatzera.

**Herritarrei sare komertzialean sartzen diren filmak iristen zaizkigu, baina ekoizpen asko geratzen dira sare horretatik kanpo. Zein bide dauke horiek helarazteko?**

Ezinezkoa da zine aretoko ikusle arrunt batek zinemaren munduan gertatzen ari dena ezagutzea. Munduan egiten diren ekoizpen interesgarrien (eta ez ekoizten den guztiaren) %15a ezagutzeko aukerarik ez dago egun. Esate baterako, aurten Txinan ekoiztutako 70 filme inguru ikusi ditut. Hauetatik zenbat iritsi dira pantailetara? Pare bat. Mundu mailan lehenengo galbaea filmak erosten dituzten enpresa banatzaileak dira. Aukeraketa honetan filme asko geratzen dira kanpoan. Sarean jarraitzen duten filme batzuen kopia gutxi egiten dira eta asko hiriburu handietan geratzen dira soilik. Hori da bigarren galbaea. Hemen ikusten da zine klub garrantzia. Euren herrietara iritsi ez diren filmak berreskuratzen baitituzte geroa. Egoera hau aldatu egingo da ordea. Munduko enpresa banatzaile handienak euren fondotzako digitalizatzen ari dira sarean jaritzeko. Beraz, iritsiko da egu-



na non, euro gutxi batzuen truke internetetik mundu guztian ekoizten diren filmak jaisteko aukera egongo den.

**Tabakalera proiektuan ere lanean ari zara. Zer eskainiko dio zinemari Tabakalera?**

Tabakalera proiektu zabala da, arte mota guztien aterpea izango da. Zinema eta ikusentzunezkoak dagokienez, Gipuzkoako osoan zabalduko diren programazioak kudeatu nahi ditu. Eta aldi berean, Euskadiko gainontzeko ekimen zinematografikoetan ko-produkzioan aritza du helburu. Honekin batera, nazioarteko ikuspegi bat izango du, estatutik kanpo egiten diren jaialdi eta zirkloetako materiala Donostiara ekarri. Bestalde, filmeen euskarazko subtituluak egin nahi dira, datu base bat sortuz eta Euskadiko edozein programatzailearen esku jarri.

**Euskarazko zineaz diagnostiko bat egiteko eskatuko banizu?**

Ba iazko urtera arte diagnostiko positiboa egiten nuen. Iaz, Donostiako Zine Jaialdian euskaraz egindako eta Euskadin ekoiztutako zazpi filme eskaini ziren. Oso onak gainera: Noma-dak TX dokumentala esaterako bikaina iruditu zitzaidan. Baina urte honetan geldialdi

bat egon dela iruditzen zait. Datorren urteari begira proiektu interesgarriak daudela uste dut. Ea hauek bideratzeko modua izaten den. Kontutan hartu behar da, estatu mailan zaila dela zinea egitea, Euskadi mailan are zailagoa eta zer esanik ez euskaraz egiten bada. Baina zinegile euskaldun onak ditugu: Asier Altuna, Telmo Esnal, Koldo Almandoz... Oreak TX-eko mutilak bigarren dokumental batean ari dira lanean. Laburmetraien alorrean, mundu mailako ekoizpenik onenetarikoa dugu. Ez naiz ez pesimista ezta optimista ere.

**Egunero ikusten duzu gutxienez film bat?**

Bat baino gehiago ikusten ditut. Osorik, urtean 365 baino gehiago irensten ditut. Zatika 1.000tik gora. Donostiako Zinemaldiaren aurretik esaterako 400 filme ikusi behar izan nituen. Lehenengo 20 minutuak ikusten ditut. Denbora horretan harrapatzen ez banau, kanpora. Baina hemendik ekainera artean lasaiago ibiltzen naiz lanean eta egunean bost filme ikustera iritsi naiteke.

**Esan liteke film batean bizi zarela?**

Iruditzen da istorioz inguraturik bizi naiz eta asko gusatzen

zait hori. Batez ere, zerbait kontatu nahi dizun jendez inguratuturik nago. Azken batean filme baten atzean zerbait kontatu nahi duen gizaki bat dago. Disfrutatu egiten dut kontaktatzen didaten hori entzuten, eta are gehiago istorioak eragiten badizu.

**Oreretako jaiotzez, Donostian bizitako, eta orain Gaztelu duzu bizitoki. Gustura zude hemen?**

Oso gustura. Lagun batek erakutsi zigun Gaztelu. Izugarri gustatu zitzaidan. Baserri zahar bat hartu, hau eraberritu eta hona etorri ginen bizitzera. Gaztelun bizitzea luxu bat iruditzen zait eta ez gara horretaz konturatzen.

**Gustatuko al litzazuko zinema munduko alor ezberdin batean frogatzea?**

Ez daukat inongo tentaziorik. Badut istorio bat buruan eta horrekin laburmetraia bat egitea gustatuko litzaidake. Ez filme bat zuzentzeagatik, baizik eta istorio hori kontatzeagatik hartuko nuke lan hori. Ni programatzaile naiz. Urte asko dararamatza lan horretan, beti saiatzen zara kalitate standar bat mantentzen, baina beti dago hobetzeko aukera. Asko daukat ikasteko. ■





# Tolosa Bit

Informatika Zerbitzuak

*Ordenagailu eramangarriak  
ordenagailu finkoak ordezkatzeko*

Oria kalea, 14-behea Tolosa • Tel.: 943 676 156 • Faxa: 943 016 857 • tolosabit@facilnet.es • www.tolosabit.es

**E**uren jatorrizko izaeraren aurkako ezaugarriak dituzten ordenagailu eramangarriak gero eta hedatuago daude: Mugikortasunak ez du axola; ordenagailuen potentzia, integrazioa, ergonomia eta hein handi batean estetikak dute garrantzia. Pixkanaka ordenagailu finkoen lekua bereganatzen ari dira.

Kontraesana da mota honetako ordenagailuei "eramangarri" deitzea. Izan ere, zama handiko ordenagailuak dira, lau kilo pisatzera iristen dira. Bestalde, pantaila handiak dituzte, 17 hazbetekoak ohikoak dira, eta teklatura ere zabalak dituzte. Aipatutako ezaugarriengatik, bulego, lantegi eta etxe barruan mugitzeko erabiltzen dira. Paradoxikoa badirudi ere, makina hauek ez dute bere eramateko maletarik ikusten. Duela bost urte pentsaezina zen ordenagailu mota hau merkatuan horrenbeste zabalduko zenik. Gaur egun, ez dago mota honetako ordenagailu bat ez duen ekoizlerik.

Informatika etxeek merkatuaren tendentziak interpretatzen jakin dute. Erabiltzaileek

ez dituzte ordenagailu finkoak nahi, ordenagailu eramangarrien aldeko hautua ia erabatekoa da. Eramangarrien barruan berriz, nahiago dituzte aipagai ditugun hauek pantaila txiki eta diseinuak dituztenak baino.

#### HELBURUA, ORDENAGAILU FINKOAK ORDEZKATZEA

Pantaila handiko ordenagailuak, tarjeta grafiko indartsukoak, teklatura osatua dutenak eta memoria zabalak diren ordenagailuak soilik etxean edo bulegoan mugitu behar dutenentzat. Hauei esker, lan-mahaian espazioa aurreztu daiteke, finkoak eskatzen dituzten kableetatik libre geratuz eta estetikoki ere beste itxura bat hartuz. Honen eraginez, ordenagailu finkoen pantailak, teklatura eta kaxa jartzeko prestatuak etortzen ziren mahaiak desagertzen

joango dira pixkanaka.

Mota honetako ordenagailuen eskari handiak prezioak jaitsi arazi ditu eta ondorioz,



prezio aldetik ere erakargarriago bilakatu dira, ordenagailuak dvd-ak ikusi, interneten nabigatu, eta euren lanak egiteko erabiltzen duen publiko zabalaren artean. Pixkanaka pixkanaka, eramangarri hauek ordenagailu finkoak ordezkatzeko ari dira. ■

Alde onak ugari ditu: HDMI irteera ordenagailua telebistara konektatzeko, 2 eta 4 Gbyte arteko RAM-a, 200 eta 500 Gb-eko disko gogorra, pantaila handia... Alde txar bakarra du: distantzia handian mugitu behar denean pisutsuegia gertatzen dela. ■

## IRATZAR

Erlojutegia • Konponketak  
Zilar gaitetan berezitasuna  
Diseinuko zilarra  
Bisuteria

Santa Maria Plaza, 1 - Nagusia  
TOLOSA • Tel.: 943 674 615



Argi lanak, antenak  
eta portero automatikoak

Apaiz-Erreka, 5 • 20400 IBARRA  
Tel.: 943 675 878 • Faxa: 943 674 181  
Mobila: 639 72 42 60



Ordenagailuak eta konponketak  
Eragarri eta gaiturritasunak  
Mantentimenduak

Oria kalea, 14-behea -TOLOSA - Tel.: 943 676 156 - Faxa: 943 016 857  
tolosabit@facilnet.net - www.tolosabit.es

# 1936KO GERRAKO OROITZAPENAK

TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN

Galtzaundi Euskara Taldeak eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak 1936ko Gerrako Oroitzapenak liburuaren inguruan antolatutako ekitaldi hauetara gonbidatzen zaituzte.

#### AZAROAK 28, OSTIRALA

*Garai bira* antzezlan (Lasarteko Landaberri antzerki eskola). Xabier Lasaren Oroimenean *Lokartutako Ahots* liburuaren aurriritutako obra.  
Ordua: 22:00  
Lekua: Leidor Zinema

#### ABENDUAK 1, ASTELEHENA

*1936ko Gerrako Oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean* liburuaren aurkezpena. Mikel Errazkin Agirrezabala eta Josemari Saizar Arostegiren eskutik. Ondoren lunch-a guztiarentzat.  
Ordua: 20:00  
Lekua: Tolosaldeko Zerkausia

#### ABENDUAK 2, ASTEARTEA

*Gerra Zibila Tolosaldean* hitzaldia, Aranzadi Zientzia Elkarte Mikel Errazkin Agirrezabala eta Iuantxo Agirre Mauleonen eskutik.  
Ordua: 20:00  
Lekua: Tolosaldeko Udako Pleno Aretoa





TOLOSA >>> BONBERENEA IRRATIAREN LEHENENGO EMISIOAREKIN ITXIKO DUTE HAMAİKAGARREN URTEURRENEKO OSPAKIZUNEN EGITARUA

# Bonberenea, hamaika ekimen hamaikagarren urteurrenean

Azaroaren 21an hasi eta urte berriko urtarrilaren 7ra arte luzatuko dira Bonberenearen hamaikagarren urteurreneko ekitaldiak. Tolosako etxe okupatuen ahokoak diren kontzertuez gain txotxongiloak, antzerkiak, Humus, Fiachras eta Bonberenea Txarangaren lan berrien aurkezpenak eta Bonberenea Irratiaren lehen emisioa izango dira besteak beste.

Erredakzioa

**H**amaika asko da. Hatzekin ezin dira hamaika zenbaturatu. Hain justu ere urte horiek beteko ditu abenduaren 23an Bonbereneak. Piromanoentzat urteurren guztiak dira garrantzitsuak, baina hamaigarren hau berezia izango da. Prestatu dituzten ekimenak ikusi besterik ez dago horretarako.

## BONBERENEA IRRATIA

Urtarrilaren 7an, Bonberenea Irratiaren lehenengo emisioarekin amaituko dira hamaikagarren urteurreneko ospakizunak. Etxeko gazteek egingo dute irratia. Euren asmoa, Bonberenean eskaintzen diren zuzenekoak irratiz emititzea da, Tolosan egon ezin dutenei internet bidez kontzertuak entzuteko aukera emanez. Hasiara batean, kontzertuen grabaketak emitituko dituzte, baina denborarekin, kontzertua zuzenean eman nahi dute irratiz. Bonbereneatik igarotzen diren musikari eta artista guztiak ere gonbidatuko dituzte mikrofono



aurrera. [www.bonberenea.com](http://www.bonberenea.com) webgunetik entzun ahal izango da Bonberenea irratia.

## HUMUS, FIACHRAS, PETTI ETA BONBERENEA TXARANGA

Aurtengo Durangoko Euskal Disko eta Liburu Azokan bere stand-a izango du Bonberenea.

Bertan salgai jarriko dituzten produktu berriak, Humus taldearen *Lekua* diskoa, Fiachras talde beasaindarraren lehenengo lana, Pettiren zuzeneko eta Bonberenea Txarangaren *Urrezko komona* bigarren diskoa dira.

Bereziki Bonberenea Txarangaren lan berriaren balioa

azpimarratu nahi dute piromanoek. Diskoan hainbat kantu ezagunen bertsio bereziak egin dituzte. Horretaz gain, kantu berri bat ere konposatu dute Zea Mays taldeko ahotsa den Aiorak lagunduta. Diskoarekin batera liburu bat ere kaleratuko da, pieza ezberdinen partiturak bilduz.

*Urrezko komona* izeneko diskoa abenduaren 23an aurkeztuko dute Tolosako kaleetan zehar. Egun horretan hain justu ere, beteko ditu Bonbereneak hamaika urte. Hori ospatzeko afaria antolatu dute etxean eta ondoren su artifizialak izango dira.



## HAMAİKA. URTEURRENEKO BONBERENEA KO KIDEEN MANIFESTUA

### norabide bat hamaika bide hamaika bide norabide bat

Euskaraz hamaikak infinitua adierazten du, behatzekin kontzertu ez den lehen zenbakia delako nonbait. Guri ere Bonbereneak hamaika urte eta elurteetan zehar egin gaitu piromano.

Nola egin gaitu Piromano?

Ez dakigu.

Dakigun bakarra zera da, 11 irizpide ezberdinetakoak, 11 izaera ezberdinetakoak, 11 auzo eta jatorri ezberdinetakoak, baita 11 adin ezberdinetakoak izanik ere, norabide berdinak bildu gaituela.

Norabide bat esaten dugunean aurrera esan nahi dugu. Bonbereneak 11 bide ditu irekiak, 11 tontor eta amildegi, 11 ekaitz eta bareune ere ziur. Baina eskuan izango ditugu autogestioaren iparrorratza, lagunaren aterkia, konpromezuz beteriko kantinplora eta nola ez, aurrera bultzatuko gaituen jarrera piromanoa ere.

Osasuna eta askatasuna.

## HAMAİKA IKUSKIZUN BEREZI

Bonbereneako oholtzan musika talde bat ikustera ohituta bagaude ere, datozen hila-beteetan bestelako ikuskizunei egingo zaie lekua. Asvineneako lagunaren eskutik, abenduaren 6an 7an eta 8an txotxongilo emanaldiak izango dira. Abenduaren 19an berriz, Incansables txarangak kontzertua eskainiko du.

Eta nola ez, kontzertuak ere izango dira. Abenduaren 5ean, Bonbereneak eta Galtzaundik elkarlanean antolatuta, Pello Ramirez arituko da. Gatibu, Doctor Deseo... talde ezagun ugari izango dira Bonberenean. Izen guzti hauetatik bat azpimarratu dute bereziki: Barakaldoko Ama Say taldea. Hamaiki urtez geldirik egon ondoren, berriro ere itzuli egin dira. Itzuleran laburra izango da ordea. Soilik hiru kontzertu eskainiko dituzte eta horietako bat Bonberenean izango da urtarrilaren 3an. ■

### Azaroak 22, larunbata.

“Brasildar festa” 22.30etan

- Mulambo (perkusioa)
- kati buri (perkusioa)
- Kapoeira Aldeia
- Rude kanka eta Aritzulo Sound System

### Azaroak 28, ostirala. 22.30etan

• Muyayos de raiz (folk)

, 22.30etan

- Humus (diska aurkezpena)
- Naiz Roxa

### Abenduak 2, asteartea.

- Petti (Petti zuzenean “Awañak”) diska kalean!!!!

Abenduak 5, ostirala. 22.30etan

- Pello Ramirez

Abenduak 6, larunbata. 22.30etan

- Txotxongiloak Cabaret de marionetas.

### Abenduak 7, igandea.

- Txotxongiloak. Circo loco de las marionetas (umeentzat) 17.00 / Cabaret de marionetas. 22.30

Abenduak 8, astelehena. 17.00etan

- Antzerkia. Asto bat hipodromoan (umeentzat)

Abenduak 12, ostirala. 22.30etan

- Doctor Deseo

Abenduak 13, larunbata. 22.30etan

- Gatibu

Abenduak 14, igandea. 18.30etan

- Zine elkarrizketak- «GRASS» pelikula-«Marihuana, la hierba de la discordia».

Abenduak 18, osteguna

- Bonberenea txaranga “urrezko komona” diska berria!!!! kalean!!!
- Kontzertua : Zura eta Sorele Leone (zurich) 22.30etan

Abenduak 19, ostirala.

- Antzerkia “por todo tus muertos” 22.30etan

Abenduak 20 larunbata

- Urteurren bazkaria
- Kalejira 11.00etan
- Txaranga
- Mulambo
- Tolosako konparsa (buruhandi eta erraldoiak)
- Bazkaria 14.00etan

Abenduak 23, asteartea

- okupazio eguna

“norabide bat, hamaika bide! hamaika bide, norabide bat!”

- Bonberenea txaranga “urrezko komona” diska tolosako kaleetan zehar!!!! 19.00etan
- Afaria 21.00etan
- Su artifizialak 00.00etan

Abenduak 26, ostirala. 22.30etan

- Evil Code
- Angelays

Abenduak 27, larunbata. 22.30etan

- Musika esperimental gaua

Abenduak 28, igandea. 18.30etan

- Zine elkarrizketak - «Requiem por un sueño» eta «el pico» pelikula

Abenduak 29, astelehena. 17.00etan

- Futbolin txapelketa

Urtarrila 3, ostirala. 22.30etan

- Ama say

Urtarrila 10 larunbata. 16.00-

- etatik 20.00etara
- Irrati maratonia!!!
- Bonberenea Irratiaren inaugurazioan
- Laket eta Atila y los Hunos, 22.30etan.

k o n t z e r t u a

**pello ramírez**  
Abenduaren 5ean, ostirala, gaueko 22:30tan  
Bonberenean

elkarlanean





TOLOSA >>> AZAROAREN 25EAN ESTREINATUKO DUTE "PIRATAK" IKUSKIZUN BERRIA. ESKUALDEAN HAINBAT EMANALDI ESKAINIKO DITUZTE URTARRILETIK AURRERA

# Pirritx, Porrotx eta Mari Motots, abordatzera datoz!

Urte bete ospitalean igaro ondoren, Mari Motots sendatu egin da. Bere bi motots ederrak berreskuratu ditu eta indarberrituta dator, jolasteko, barre egiteko eta ondo pasatzeko gogoz. Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pirata bilakatu dira orain, eta azaroaren 25etik aurrera, herri herri altxoraren bila ibiliko dira Piratak euren ikuskizun berriarekin. Galtzaundi, Euskal Herriko pailazorik ospetsuenekin egon da.

Leire Zubeldia

A te bat itxi eta beste irekiko dute Pirritx eta Porrotx pailazoez. Urte bete eman dute Eskerrik asko ikuskizuna han eta hemen eskaintzen. Azaroaren 15ean, Donostiako Kursaal, Aspanovas (minbizia duten haurren senideen Gipuzkoako elkar-tea) elkartearrekin batera egindako festa handian eskaini zuten azken emanaldia. Urte polita izan da Pirritx, Porrotx, Mari Motots eta taldekide guztientzat: "Urte guztiak dira politik baina aurten goa berezia izan da. Minbiziaren gaia landu dugu, Aspanovas elkartekideak saio guztietan izan dira, harremana izan dugu gaixorik dauden haurrekin, euren senideekin... Askok eman dugu, baina asko jaso dugu. Irribarre bat, marrazki bat, edozein gauza txiki garrantzitsua da gaixorik dagoen haur batentzat. Helduak ez gara horretaz konturatzeko. Gauza txikiak baloratzen ikasi dugu". Pailazoen hitzetan, Eskerrik asko ikuskizunean ez dute gaixo bat aurkezten, sendatzeko bidean dagoen haur bat da protagonista. Hain

zuzen ere, ikuskizun honetan hasi ziren pirata izatera jolasten. "Ikusten genuen, bai guregan eta bai gure jarraitzaileengan. Mari Motots sendatzeko beharra zegoela. Iaz erori zitzaizkion mototsak berreskuratu ditu, eta inoiz baino motots ederragoak ditu orain. Mari Motots gure lagunak".

## PIRRITX, PORROTX ETA MARI MOTOTS PIRATAK

Euskal Herriko pailazorik ospetsuenak eta euren lagun banaezina pirata bilakatu dira. "Piratak



Pirritx, Porrotx, Mari Motots eta zenbait taldekide.

gara, bihurriak, alaiak festa zaleak eta errebeldeak garelako; inork goberna gaitzan ez zaigulako gus-tatzen; herri txiki bat garelako eta handi-mandiek ez gaituztelako maite; lapurren lapur izan nahi dugulako".

Hirukote alaiak lagun berri bat du ikuskizun honetan. Kattalin du izena. "Kattalin pirata emakumea da. Itsasargi batean bizi da. Egun eta gau, bere katalajuekin itsasoari begira egoten da pirata galduen bila. Pirata galduek pateretan etortzen dira. Garai batean euskaldunok joan ginen eta orain badatoz. Horregatik Kattalinek harrera egin eta babesa ematen die". Pirritx, Porrotx

eta Mari Motots egun pasa joango dira Kattalin emakume pirata erretiratuarengana. Altxoraren bila jolastuko dute. Altxorra bilatzeko hainbat proba gainditu beharko dituzte. Baina piraten munduan ezer ez da erraza. Espero ez duten bisita bat izango dute, Petrol jaunaren bisita. "Petrol jaunak Euskal Herrian altxor baten bila ari garela jakiten du, eta bera ere altxor horren bila etorriko da. Baina Petrolek (Kattalin, gure lagunak Petral jaun-a deitzen dio), ez du espero duen

altxorrik topatuko". Izan ere, Euskal Herrian dugun altxorra berezia da oso; urreak baino gehiago balio du; ez dago lurpean ezkutatuta, ezpainetan daukagu. Zein ote da Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen altxorra?

Ikuskizunarekin batera, disko bat ere plazaratu dute pailazoez. 20 kantu zoragarri ditu, guztiak Xabier Zabalak sortutakoak. "Disko guztiak dira bereziak guretzat, baina azkeneko hau benetan polita geratu zaigula iruditzen zaigu". Diskoaren gaia zein den esan beharrik ez dago: "Disko guztian dago itsasoaren eta piraten usaina". Kaxianoren Itsasontzi baten kantuaren ber-

tio karibearra, Euskal Herriko kostaldeko herri guztien izenak esaten diren kantu bitxia... Mota eta kolore guztietako abestiak daude. Datorren urtean Oionen ospatuko den Araban Euskaraz jaiaren kantua eta Berrobin izango den Eskola Txikien egunerako prestatuko abestia ere sartu dituzte disko berrian. Gainera, Pirritx Porrotx eta Mari Mototsen ahotsekin batera abeslari ezagunenak ere entzun ahal izango dira. Su ta Gar taldeko Aitor Gorosabelena esaterako. "Bikantuei jarri die kitarra eta ahotsa. Kantu horietako bat Donostiako Piratei eskainia da gainera". Diskoan parte hartu duen beste talde ezaguna, Celtas Cortos da. Tapia eta Leturia, Oreka TX, Labrit... oso luzea da Piratak diskoan parte hartu duten laguneren zerrenda.

Pailazoez azaroaren 25an Legazpin eskainiko dute estreineko aldiz Piratak ikuskizun berria. Orain arteko dinamika-rekin hautsiz, bi urtez arituko dira saio bera eskaintzen. "Aurreko ikuskizun guztiek urte bat iraun dute, baina konturatu gara urtea motz geratzen zaigula eta ez gara herri txikietara iristen". Pirritx eta Porrotx lasartearrak badira ere, dagoeneko nahikoa tolosartuta daudela aitortzen dute. Honenbestez, Tolosaldean emanaldi dexente egingo dituzte: Esate baterako, urtarrilaren amaieran Ibarran izango dira eta martxo aldera Tolosan. Bada beste albiste aipagarri bat ere. Bikote izate-tik hirukote izatera igaroko dira pailazoez. Hemendik aurrera, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots izango dira. "Ikusten dugu haur asko identifikatzen direla Mari Mototsekin". Horregatik, urte luzez eurekin nahi dute.



## PAILAZO LANGILEAK

Alaiak, bihurriak eta pirata izateaz gain, langileak ere badira gure pailazoez eta euren egunerokotasuna nolako den adierazteko. Bestalde, Lax "n" Busto talde kataluiniarrak Bonberenean egindako bisitan grabatu genuen erreportaia ere badator. Eta erreportaia-taz ari garela, Donostiako suhiltzaileen egoitzan igaro genituen bost egunen labur-pentxo bat egin dugu".

Liburudendatan eskuragai dago dagoeneko Pirritx eta Porrotx sukaldean Amaia Diaz de Monasterioren dietista-

zuen egunerokoa sartu dugu, gaixorik dagoen haur baten egunerokotasuna nolako den adierazteko. Bestalde, Lax "n" Busto talde kataluiniarrak Bonberenean egindako bisitan grabatu genuen erreportaia ere badator. Eta erreportaia-taz ari garela, Donostiako suhiltzaileen egoitzan igaro genituen bost egunen labur-pentxo bat egin dugu".

Liburudendatan eskuragai dago dagoeneko Pirritx eta Porrotx sukaldean Amaia Diaz de Monasterioren dietista-

rekin elkarlanean egin dute liburu hau. Sukaldeko erreze-tak azaltzen dira batetik, eta bestetik, elikagaien multzoak azaldu dituzte, jaki bakoitzak osasunari egiten dion ekarpe-na erakutsiz. "Egiten ditugun lanetan balore ezberdinak lan-tzen saiatzen gara. Oraingo honetan elikadura egoki baten beharra azpimarratu nahi izan dugu". Errezetak, ipuinak eta elikadura azalpenak tartekatuz, sukaldean edota ohean irakur-ri daiteken liburu da.

Hau ez da guztia, bada bes-

terik. Gogoratzen Ilargiaren sekretua filma? Ba orain kata-luina itzuli dute. *El secret de la lluna* izena du eta urtarri-lean estreinatuko dute".

Lanez gainezka dabilta Pirritx, Porrotx, Mari Motots eta taldekide guztiak. Hala ere proposamen berrietara zabalduta daude. Zu, egon zaitez adi. Gutxien espero duzunean lehorreratuko baitira pirata bihurri hauek zure herrian. Pirritx Porrotx eta Mari Motots, abordatzera datoz!

**Zumardi**  
SEGUROS  
BILBAO

Aholkularitza  
integrala

Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877

**Beatriz**  
Dekorazioa  
Donostia - Tolosa

Donostia	Donostia	Tolosa
San Martin, 16	Garibai, 8	Rondilla, 11
943 425 886	943 420 259	943 670 615
943 420 187	943 430 947	943 671 149

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak  
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

**JANTZIAK**  
**OSKI**  
oinetakoak

Nafarroa Etorbidea, 11  
Tel.: 943 651 264 - TOLOSA



# Humus, bere lekutik

AZAROAREN 29AN AURKEZTUKO DUTE BONBERENEAN LEKUA EUREN LAUGARREN DISKOA



2004an Leihotik begira zai diskoa kaleratu zutenetik oso gutxitan utzi dira ikusten Natalia, Mantxi eta Edu, Humus taldeko kideak. Denbora horretan ez dira geldirik egon. Musika egiten jarraitu dute. Horretarako bide berriak urratu dituzte gainera. Lekua diskoak ezustekoak ekarriko ditu. Azaroaren 29an Bonberenean egingo duten aurkezpen kontzertuan deskubrituko dituzu. Nataliak, taldeko abeslariak, aurrerapen txiki bat egin dio Galtzaundiri.

Erredakzioa

2004an, Leihotik begira zai disko atera zenutenetik geldirik egon zarete. Zerk bultzatu zaituzte berriz ere Humus taldea berrartzera?

Ez gara itzuli, inoiz ez baitugu Humus taldea utzi. Entsaiazten jarraitu dugu, kantuak sortzen jarraitu dugu. Lau urte igaro ditugu zuzenkorik eman gabe, nahiz eta pare bat kontzertu ere egin ditugun. Alde horretatik, egia da, etenaldi bat egon dela. Baina ez dugu utzi. Musika oso garrantzitsua da guretzat, musikaren beharra dugu, ihesbide moduko bat baita. Musika egiteko gogoak bultzatu gaitu disko hau egitera. Kantu berriak genituen eta abentura honetan sartzea erabaki genuen. Disko bat egitea abentura bat da guretzat.

2004ko Humus bera da gaurko edo zerbaitetan aldatu da?

Nik uste dut aldatu egin dela. Ez da irauli, baina aldatu egin da. Orain arte metalaren eta rock gogorraren esparruan sartu gaituzte. Disko honetan, nire ustez hard rockaren ingurura gerturatu gara. 80. hamarkadako rockaren

potentzia horretatik hurbilago gaude. Gu beti Humus izango gara, metala hor dago oraindik, baina zeharbide ezberdin bat hartu dugu.

Oinarriak berdinak izaten jarraitzen dute ordea: zure ahotsa eta kitarra

Bai. Kitarra du protagonista diskotan. Gainera kitarra guk nahi bezala geratu da. Kutsu berezi bat eman nahi genion eta lortu egin dugu. Alde horretatik primerako lana egin du Karlos Osinagak. Berarekin grabatzea esperientzia aberasgarria izan da. Norbaitek gauzak argi dituenan ondo egiten baita lan. Kitarra da soinu metalikoa definitzen duena. Lan berrian metala badago, ez da guztiz desagertu, baina nolabait eklipsatuta dago. Oso melodia indartsuak lortu ditu Mantxik. Oso gustura geratu gara.

Zerk bultzatu zaituzte ildo aldaketara hau egitera?

Honen errudun bakarra Mantxi izan da. Beti izan du gauza berriak probatzeko grina. Bera da talde berriak entzun eta ideiak ekartzen dituena. Gero denon artean lantzen dugu ideia hori.

Zer jaso edo kontaktu nahi izan duzue disko honetako kantuetan?

Sentsazioak eta sentimenduak jasotzen ditugu. Ez dugu gauza konkretuez hitz egiten. Jendeari bere interpretazioa egiten utzi behar zaiola uste dugu. Jendeak letra baten irakurketa ezberdinak egin ditzake. Hori lortzea izugarria da niretzat.

Zergatik Lekua?

Azalean aulki bat dago. Eta aulki horrek bakoitzak daukan lekua irudikatzen du. Ez bakoitzak merezi duen lekua, ez nahi duen lekua, daukan lekua baizik. Askotan pertsona bakoitzak dugun lekua ez da izan nahi genukeen hori. Norberaren esku geratzen da desio duen leku horretara iristea. Ez du zertan pertsona baten lekua izan behar: Erakunde baten lekua izan liteke, herri baten lekua... Guk, musika munduan hamaika urte igaro ondoren, Humus taldea bezala "hau da gure lekua" esan nahi izan dugu disko honekin. Diskotan ez dago lekua izena duen abestirik. Ez genuen nahi, bestela titulua kantuarekin lotzen baita.

Zein da ba Humusen lekua?

Jendeak eman nahi diona. Bestela, guk badakigu zein den gure lekua, hamaika urte bete ditugu. Baina lekua ez dugu gure lekuaren aldarrikapen moduan ulertzen... Hemen gaudela, leku honetan, baina jendearekin ondo pasatzeko, zuzenekoak emateko eta musika egiteko gogoz.

Musikak hausnarketa egitera bultzatzen zaituzte...

Niri pertsonalki bai eta taldekideei ere bai. Guk musika egiten ondo pasatzen dugu, baina musika, hori baino gehiago da.

Aurreko diskoaren antzera, Lekua ere Bonberenea Ekintzak-ekin ateratu duzue. Horrelako lan talde bat eskuratu izatea ere giltzarri izango zen disko hau ateratzeko erabakian...

Guk gure disko guztiak auto-produzitu egin ditugu. Inoiz



ez dugu disko bat atera disko-etxe bateko zigilupean. Aurreko diskoa Bonberenearekin ateratzeko aukera izan genuen. Disko hura grabatu bezain pronto erabaki genuen, beste lan bat eginez gero, Bonberenearekin egin behar genuela. Apustu hori egin genuen. Lau urte igaro dira ordutik, eta erabaki bezala, Bonberenearekin ateratu dugu diskoa, alde batetik, Bonberenea egiten ari dena erreferente kultural bat dela iruditzen zaigulako, eta

bestetik, gu ere Bonbereneako kide sentitzen garelako.

Aurtengo Izaskun auzoko jaietan eskaini zenuten kontzertua. Disko berriko kantuek jo zenituzten. Ze erreakzio sortu zuten jendearengan?

Jendea harritu egin zen, lehengo ildo horretatik egingandako abestiak espero baitzituzten. Ezberdina iruditu zitzaion. Aldaketa bat somatu zuten. Sorpresa moduko bat eragin zuen jendearengan. Guk gogo izuga-

ria genuen kantu berriek zein efektu sortuko zuten ikusteko.

Nolakoak izango dira zuzenekoak?

Abesti berri dexente sartuko ditugu. Zuzeneko gogorrak eman izan ohi ditugu, eta kantu hauekin, uste dut, gogorra ere prestaketa lanetan gabiltza. Esan dezakedana da, xehetasun guztiak zainduko ditugula. Bereziki soinua. Kitarraren soinuan jarriko dugu arreta, erregistro berri honetan

" Ez da irauli, baina aldatu egin da. Orain arte metalaren eta rock gogorraren esparruan sartu gaituzte. Disko honetan, nire ustez hard rockaren ingurura gerturatu gara. 80. hamarkadako rockaren potentzia horretatik hurbilago gaude".

garrantzia handia baitu. Gainera, zuzenekoetarako bigarren kitarra bat batu zaigu taldera: Luisma. Alde horretatik, zuzenekoak ere aldatu egingo dira. Ez soilik soinuari dagokionean, estenatoki gainean ere somatuko dira aldaketak. Zuzeneko indartsua prestatuko dugu.

Diskoa laister izango da kalean, lehenengo zuzenekoak ere hitzartuta dituzue. Orain zer?

Gure planteamendua ez da zortzi kontzertu eman eta kitto. Aurrekoetan ere ez zen horrela izan. Hemen jotzen hasiko gara eta Euskal Herriatik ateratzeko asmoa ere badugu. Disko berria ateratu dugu eta orain jendearekin konpartituz ondo pasa nahi dugu. Gogo izugarria dugu musika egiteko eta eskaintzeko. ■

**J. San Sebastian**  
MARISKO ETA ARRAINAK

Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

**ZALBIDE**  
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.  
Ostirala, larunbata eta igande eguerditan irekita, iluntzetan egunero.

Zalbide baserria - Abaltzisketa  
Tel.: 943 652 176

**ONAK**  
MARMOLAK, S.A.

Mota guztietako lanak:  
Granitoan marmolean eta beste harri batzuetan

Errazu poligonoa • Sailsa, 1 • URNIETA  
Tel.: 943 331 227 • Faxa: 943 008 613



# Su-berri elkarteak jaio da pilotarako zaletasuna hauspotzeko

KUBAN MUNDUKO KOPA LEHIATZEN ARI DIRA UNE HONETAN SU-BERRI ELKARTEKO HIRU PILOTARI.

Leire Zubeldia

**A**noetan ezaguna da Kuku Pilota Elkarteak. Oraindik ere lanean ari da. Elkarte honetatik datoz, Su-Berri Pilota Kirol Elkarteak pilotariak. "Iazko denboraldi amaieran erabaki genuen, paper kon-tuengatik eta, egokiagoa izango zela elkarte berri bat sortzea", adierazi dute elkartetik. Federazioarekin hartuemanak erraztu eta diru-laguntzak eskatzeko prozesuak leuntzeaz gain, elkarte berriaren sorrerarekin, Anoetan duela urte batzuk zegoen pilotarako zaletasuna berreskuratu nahi dute. "Herrian beti egon da pilotarako joera. Ez dakigu zergatik, baina azken urte hauetan behar-raka egin du, eta orain, soilik bederatzi gazte daude jokatzen". Elkarteak kideen ustez, pilota serio hartzeko garaia iristen denean eteten da katea. "Ardurak hartzeko garaian atzera egiten du jendeak. Aste-buruetan pilota partiduak jokatzerik ez dute nahi, gaztetxo-en gurasoak arazoak jartzen hasten dira. Konpromiso falta dago". Era honetan, gaur egun, Kuku Elkarteak ez du federatutako pilotaririk. Pilotarekiko zaletasunaren behar kadaren beste arrazoi bat, pilota eskolak soilik eskuzko jokora mugatzen direla da. "Adin batetik aurrera, eskuz jarraitzeko arazoak izaten dituzte gaztetxoek, pilota gogorrek hastean mina hartzen dutelako edo gaizki moldatzen direlako. Puntu honetara iristean utzi egiten dute beste pilota jokamoldeak lantzen ez dituztelako". Horre-

**Azaro hasieran egin zen Anoetako Su-Berri Pilota Kirol Elkartearen aukerzpena. Herrian pilotarako zaletasuna berpizteko eta eskuzko pilotaz gain, beste jokamoldeak erakusteko helburuarekin jaio da.**



Su-berri elkarteak pilotariak aurkezpen ekitaldian.

gatik pilota erreminta ezberdina lantzeko aukera eman behar dela defendatzen dute Su-Berri.

## HELBURUAK ONDO FINKATUAK

Egoera zein den ikusita, Su-Berri elkarteak badaki zeintzuk diren bere zereginak eta zein norabidetan egin behar duen lan. "Uste dugu, eskaintza on bat eginez gero, jendea animatu dela pilotan hastera", diote.

Hasierak beti izaten dira aldapatsuak, eta horregatik, poliki joateko asmoa dute. Su-berri

Elkarteak bederatzi pilotari federatutakoekin abiatu da. Denak dira neskek eta paletan jokatzen dute. Bi jubenilak dira, beste bi hogeita bi urtez azpikoak, eta bost, nagusi mailan jokatzen dutenak. "Hasierako gure helburua, pilotari hauei entrenamenduak eta lehiatzeko baldintza egokiak eskaintzea da". Izan ere, Su-berri elkarteak palistak punta-puntako kirolariak dira. Hogeita bi urtez azpikoetan munduko txapeladun titulua eta nagusi mailako munduko txapeladunorde titulua daude bertan. Harro baina ez harrokeriaz, Su-Berri "Euskadiko

palistarik onenak" daudela azpimarratu nahi izan dute. Herriak eta eskualdeak hori baloratzen jakin beharko luke. Aipatutakoaz gain, jendea frontoira erakartzeko ekintza ezberdinak antolatuko asmoa dute. Abenduan izango den Anoetako kirol astearen esaterako, nesken pala partiduak eta pilota jokamolde ezberdinetan frogatuko zirkuitu moduko bat antolatuko dituzte.

2009-2010 ikarsturtera begira berriz, pilota-eskola martxan jarri nahi du sortu berri den elkarteak. "Udalak antolatuta, egun ere bada pilota eskola bat.



Euskal Herritik Kubara joan diren palistak. Hiru, Su-berri elkarteak kideak dira.

Hitzarmen bat sinatu eta ardu-ra hori guregain hartzeko asmoa dugu. Pilota eskola eraberritzeko beharra dagoela uste dugu. Entrenatzaile berri bat jarri eta eskolak beste era batera antolatuko asmoa daukagu". Pilota eskolak eman beharreko beste pausoa, eskuzko pilotaz gain, beste jokamoldeetan aritzeko aukera ematea da. "Jokamolde asko daude: Irura berrehun metrotarra daukagu eta bertan Xarean jokatzen da. Tolosa kilometro eskasera dago, eta hemen, zesta puntako eskola dago. Paleta, erremontea... Jokamolde asko daude eta erreminta horiek erabiltzen erakutsi behar zaie gazteei". Hasiera batean esku

pilota eta pala landuko dute Su-Berri. Gerora, beste erremintak sartzen joango dira pixkanaka. Bien bitartean, eskuz edo pala ez den beste jokamolde batean jokatu nahiko lukeen pilotari bat etorriko balitz, gertuen dagoen elkartearekin jarriko lukete harremanetan.

## ANOETAN, BAINA ESQUALDERA ZABALDUTA

Su-berri elkarteak Anoetako frontoian eta Irurako trinketean egingo ditu bere entrenamenduak. Horrek ez du esan nahi ordea, soilik bi herri horietako pilotariak hartuko dituztenik. Eskualdetik edo beste edozein herritatik datorrena

ongi etorria izango da. "Inguruko jendea gure elkartera etortzea gustatuko litzaiguke. Batez ere neskek. Iruran esaterako badago nesken paleta eskola bat, eta Tolosan ere badaude neskek. Baina federatu eta pilotari serio aritu nahi dutenak, aipatutako pilota eskola hauei bakarrik egon beharrez, gurera etortzea gustatuko litzaiguke". Horrela, Anoetako elkarteak, anoetarrak, alegiarak, lizartzarrak, zizurkildarrak, lasartearrak eta bizkaitarrak bat ere badago. Neskek ez ezik, mutilak ere nahi dituzte Su-Berri. Ateak zabalduta dituzte. Eurekin harremanetan jartzeko bidea, su-berri@hot-

"Uste dugu, eskaintza on bat eginez gero, jendea animatuko dela pilotan hastera".

mail.com helbide elektronikoa da.

## SU-BERRI ELKARTEKO PILOTARIAK MUNDUKO KOPAN

Elkarteak aurkeztu eta gero Kubara egin zuten hegan Su-Berri pilota elkarteak zenbait pilotarik. Bertan, azaroaren 16an hasi eta hilaren 23ra arte, Munduko Kopa jokatzen ari dira Kuba, Mexiko, Iparraldeko eta Euskadiko Selektzioak pilotariak. Euskadiko nesken paleta taldea lau pilotarik osatzen dute eta lautik hiru Su-Berri elkarteak dira: Maider Mendizabal, Itxaso Urkizu eta Nagore Arozena dira zehazki munduko koparengatik lehiatuko direnak. Kanporaketako partiduak jokatu ondoren, hilaren 23an jokatuko dira, finala eta hirugarren eta laugarren postuak. Galtzaundik Kubatik iristen diren berrien jarraipena egingo du [www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com) web gunean. Bien bitartean zorte on Su-berri elkarteak pilotariak eta baita bidea abiatu berri duen elkarteari berari ere. ■

Jantzi dotore, jantzi hitza.

Salmentak puntuak: Tolosa 0501 arropa demian, Leizaola 0502A inbarnan eta HITZAREN Tolosa eta Leizako bulegoetan.

zirik • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...

hitza



# Azaroaren 21etik abenduaren 5era arteko hitzorduak

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat: [erredakzioa@galtzaundi.com](mailto:erredakzioa@galtzaundi.com) helbidera

## ERAKUSKETAK

### ARANBURU JAUREGIA

» Azaroaren 29tik abenduaren 8ra: Txo-txongilo jaialdiko erakusketa: Errusiara leihoa.

### FRONTOI KAFETEGIA

» Azaroaren 18tik aurrera. Irudia eta bere ingurumaria, Xabier Salazarren beirazko lanen erakusketa.

## MUSIKA

### BONBERENEA

» Azaroak 21: Fiachras eta Mahaster River taldeen kontzertuak gaueko 22:30ean hasita.

» Azaroak 22: Mulambo perkusio taldearen Brasildar festa gaueko 22:30ean.

» Azaroak 28: Muyayos de raiz taldearen zuzeneko 22:30ean.

» Azaroak 29. Humus taldearen disko aurkezpena eta Naiz Roxa.

» Abenduak 2: Pettiren zuzeneko diskoaren aurkezpen kontzertua.

## IKUSKIZUNAK

### ALKIZA

» Azaroak 21: 1,2,3 Iñaxito haurrentzako antzerkia Kultur Etxean 17:30ean.

## ZINE FORUM

### LEIDOR

» Azaroak 27: The dead girl filma 19:15ean eta 21:45ean.

## ZINEMA

### LEIDOR

» Azaroak 21: Tropic Thunder filma 22:00etan.

» Azaroak 22: Beldurrezko eta Fantasiako zine maratonia 21:30ean hasita.

» Azaroak 24: Happy filma 20:30ean.

## BABARRUNAREN ASTEA

» Azaroak 21: Fronton Jatetxeak 50 laguntzako afari irekia egingo du, menua "Slow Food" moduan katalogatutako produktuekin izango delarik.

» Azaroak 22: Goizean, Tolosaldea Tour-ek bisita gidatuak eskainiko ditu babarrun ekoizle diren herrietara. Trianguloan, 09:00etatik aurrera zabalduko da Babarrunaren Azoka Tradizionala. 12:00etan, Babarrunaren Kofradiaren eskutik, Tolosako Babarruna dastatzeko aukera izango da. Triangulo Babarrun Ekoizleen Lehiaketa egingo da. Roberto Ruiz sukaldariak lehiaketara aurkeztutako babarrunak sukaldatuko ditu. Ondoren enkantea. Eguerdian, Ezpeleta Elkarteko ostalarien eskutik babarrun jana izango da doan Alde Zaharreko edaritegi ezberdinetan.

» Azaroak 23: Gure Kayola elkarte gastronomikoak antolatuta, Tolosako Babarrun Lehiaketa Gastronomikoa Zerkausian. Gero, herri bazkaria izango da Zerkausian.

## ALEGIAN UDAZKENEAN KULTURA

» Azaroak 21: "Ogirik gabe etorri zen

semea" antzerkia Kultur Etxean 22:00etan.

» Azaroak 22: "2008KO HERRIKO FESTAK" ARGAZKI PROIEKZIOA Kultur etxean 11:00etatik 12:30ak arte.

» Azaroak 23: 2. eskuko azoka 11:00etan hasita herriko plazan. Eguraldi txarrekin frontoian.

» Azaroak 27: Zine-forumean, Flores de otro mundo filma 22:00etan Kultur Etxean.

» Azaroak 28: Bertso poteoa eta ondoren afaria Unai Muñoa eta Iñaki Gurrutxagarekin Intxurre elkarte.

» Azaroak 30: Mendi irteera 08:30ean.

## IKAZTEGIETAKO UDAZKEN KULTURALA

» Azaroak 21: 21:30; Herriko ostatuan, Ikaztegieta kantuz kontzertua.

» Azaroak 22: 19:00; Gaztain eta talo jatea.

## EUSKARAREN EGUNA TOLOSAN

» Azaroak 28: "Babel mundua" haurrentzako antzerkia Leidoren 18:00etan. Ereiteak antolatuta.

» Azaroak 29: Trianguloan, 10:00- 15:00 Talo eta sagardo dastaketa. 12:00; Uda-



berri Dantzari Taldearen emanaldia eta trikitilariak. 13:00; Bertso saioa Agin Rezola eta Uxue Fernandezekin. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta.

» Abenduak 3: Haur Liburutegian, 18:00etan, Idoia Sanchez ipuin kontalaria. Ereiteak antolatuta. Udaletzeko pleno aretoan, 18:00 etan: Joxerra Garzaren hitzaldia. "Zer arraio, kristo, demon-tre... egin behar dugu euskararekin?" Galtzaundik antolatuta.

» Abenduak 5: 18:30ean Haur Liburutegian hitzaldia Ereiteak antolatuta. Kike Amonarriz eta Xabier Aierdi. Gaia: Euskara eta etorkinak. Ondoren afaria Uzturre sagardotegian. Ereiteak antolatuta.



## MOTZEAN

### Genero eta inmigrazioaren inguruko literatur lehiaketa

Tolosaldea Garatzen agentziako inmigrazio sailak, "Emakumeen ekarpena migrazio prazuetan" izeneko lehenengo narratiboa lehiaketa antolatuta du. Ekimen honek, migrazio prozesuan ezkutuan geratzen diren emakume etorkinei dagokien lekua aitortzea du helburu.

Lehiaketan bi maila bereizi dituzte. Lehena 16 urtez azpikoena eta bigarrena 16 urtetik gorako gazteena. Euskaraz edo gaztelarazko testuak aurkeztu daitezke. Lanak Tolosaldea Garatzen agentziaren egoitzan utziko dira abenduaren 31a baino lehen. Epaimahaiak emandako epaia otsailean jakinaraziko dute.

Lehiaketako oinarriak osorik dituzu [www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com) web gunean.



### Guardiako farmaziak

#### URRIA

<b>Osteguna, 21</b>	Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa
<b>Ostirala, 22</b>	Morant R.(Zabalarreta, 1) Tolosa
<b>Larunbata, 23</b>	Bronte, Cecilia (Korreo, 20) Tolosa
<b>Igandea, 24</b>	Ugarte, M <sup>te</sup> Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
<b>Astelehena, 25</b>	Iturrioz, I.(Euskal Herria, 46) Ibarra
<b>Astearte, 26</b>	Clarraaga M. (M.J.Iraola, 10) Tolosa
<b>Asteazkena, 27</b>	Tolosa, M <sup>te</sup> Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
<b>Osteguna, 28</b>	Azpiroz Lourdes (Amaroz, 9) Tolosa
<b>Ostirala, 29</b>	Clarraaga J. (korreo 2) Tolosa
<b>Larunbata, 30</b>	Etxebeste Jesus M <sup>te</sup> (Gemikako arbola, 3) Tolosa
<b>Astelehena, 1</b>	Bronte, Cecilia (Korreo, 20) Tolosa
<b>Astearte, 2</b>	Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa
<b>Asteazkena, 3</b>	Tolosa, M <sup>te</sup> Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
<b>Osteguna, 4</b>	Ugarte, M <sup>te</sup> Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
<b>Ostirala, 5</b>	Azpiroz Lourdes (Amaroz, 9) Tolosa

### Telefono interesgarriak

<b>Alegia-Amezeta-Abaltzisketa-Albiztur</b>	Osasun zentroa . . . . . 943 653 212
<b>Altzo</b>	Medikua . . . . . 943 654 737
<b>Anoeta-Alkiza-Hernalde</b>	Medikua . . . . . 943 652 339
<b>Baliarrain</b>	Medikua . . . . . 943 889 003 (asteazk.)
<b>Berastegi-Elduain</b>	Medikua . . . . . 943 683 361
<b>Bidegoian</b>	Medikua . . . . . 943 681 134
<b>Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu</b>	Osasun etxea . . . . . 943 672 411
<b>Ikaztegieta</b>	Medikua . . . . . 943 653 329
<b>Irura</b>	Osasun zentroa . . . . . 943 690 720
<b>Tolosa</b>	Antulorria, larrialdiak . . . . . 943 650 931
	San Esteban, hitzordua . . . . . 943 006 800
	Gemikako Arbola, hitzordua . . . . . 943 006 900
	Amarozko dispensarioa . . . . . 943 672 637
	Asunzioz klinika . . . . . 943 675 799
	(larrialdiak) . . . . . 943 675 390
	San Kosme San Damian
	geriatrikoa . . . . . 943 672 932
	Udalzaingoa . . . . . 943 675 858
	Ur eta Argia (Tolargi) . . . . . 943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak) . . . . . 639 352 156
	lurreamendi egoitza . . . . . 943 670 325
	Larrialdiak, Suhiltzaileak . . . . . 112
	DYA . . . . . 943 672 536
	Gurutze Gorria . . . . . 943 674 888
	. . . . . 943 651 425
	Ertzaintza . . . . . 943 673 022
	Tolosa Gasa . . . . . 943 675 320
<b>Lizartza</b>	Medikua . . . . . 943 682 077
<b>Orendain</b>	Medikua . . . . . 943 655 595
<b>Orexa</b>	Medikua . . . . . 943 682 228

**HALCON**  
BIDAIK

*Bidaiarik erakargarrienak*

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113

**errrotatxo okindegia**

Andia kalea, 3      Amaro, 9-A  
Tel.: 943 655 492      Tel.: 943 671 038

**Vicente**  
Errotuloak

Mugikorra: 609 15 65 08  
Laskibar bailara 25 ■ Tel. 943 690294  
■ Irura      Faxa. 943 694291  
rotulosvicente@Jet.es

**ULI**

Meriendak, txurroak

Nafarroa, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943 651 830

**Xirimiri**  
Txokolategia  
Xabier Izagirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223  
Errementari kalea, 40 • TOLOSA



Muxu-  
-truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean dohainik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

## LANA

Adineko pertsonak edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, 680 983 527

Hortz protesikoa eskaintzen da laborategian edo auxiliari lanetan aritzeko. 671 44 66 15

Sukalde laguntzaile edo plater garbiketarako lan bila nabil. 671 44 66 15

## ETXEBIZITZA

Etxebizitza salgai Alegian. 65 m<sup>2</sup>. 168.000 euro. 629 52 51 50.

Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m<sup>2</sup>. 2 logela, sala, sukaldia eta komunarekin. 645 718 536

Ikasle bat, pisu bat konpartitzeko beste ikasleen bila dabil. 627834993.

Garaje bat alokatzen da Anoetako San Juan kalean.

## ALOKAIRUA

Tolosako Iparragirre auzoan 34 m<sup>2</sup>ko lokala alokairuan. Argitsua eta egoera onean. 645 710 789.

## SALGAI

Kotxe bat salgai BMW 330 D full equipa 18.000 euro. 629 52 51 50.

Kotxe bat salgai Matrikula: 8351 JX. Prezioa: 961 euro. 617 863 669.

Artzai txakurra salgai 617 863 669

## HOROSKOPOA

AZAROAREN 21ETIK ABENDUAREN 5ERA ARTEKO AURREIKUSPENA

## ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Gauza guztiak batera egin nahi eta ezin. Presak ez dira lagun onak izaten. Patxadaz hartu gauzak eta eginbeharrak dosifikatu, bestela ez zara denerea iritsiko.

## TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Erabakia hartzea kostatu egiten zaizu eta izutu egiten zara. Baina lasai, laster aditu bilakatuko zara horretan, denbora laburrean erabaki asko hartu beharko bitituzu.

## GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Geldialditxo bat egin eta zure bizitzarekin zer egin nahi duzun pentsatzea komeni zaizu. Noraezean egiten den bidea alferrikako bidea izaten da.

## CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Haize berriek mesede egingo dizute. Jende berria ezagutuko duzu eta lagun onak egin. Kontuz bizkarrekin, oina-zea eragingo dizu.

## LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Edozein txikikeriak tristetzen zaitu. Ez da garai ona albiste txar bat jasotzeko, baina kaltetu egingo zaituen gerta-rrak dosifikatu, bestela ez zara denerea bilatu beharko zenuke babesa.

## VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Nekagarri xamar zaude, beti bere atzetik. Gogaituta daukazu. Erantzun txarrik jaso nahi ez baduzu utzizu arnas pixka bat hartzen. Lanean gustura aurkituko zara.

## LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Garai ona da buruan duzun proiektu hori lantzen hasteko. Ausart jotatzen baduzu arrakasta izango duzu bizitzako alor guztietan. Arriskatu zaitzez beraz!

## SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Kezkatuta zabilta gaiarekin, baina lasai, krisiak ez du zure lanpostuan eragingo. Horrek ez du esan nahi dirua bota behar duzunik. Ustekabeko gastuei aurre egin beharrean izango zara.

## SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Pertsona batekin harremana estutu nahian zabilta. Sentsazio onak igortzen dizkizu. Ez fidatu gehiegi. Bikotekidearekin igarotzeko egun zoragarriak dituzu aurretik.

## CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

Iraganean egin zizkizuten mesedeak ordaintzea egokituko zaizu. Izan zaitetz abegikor. Dentistarena joan beharko zenuke, berandu baino lehen gainera!

## AQUARIUS

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Minduta zaude eta esan egin beharko zenioke, mina gomoto bihurtu baino lehen. Egindako lanaren saria jasoko duzu egun gutxiren buruan.

## PISCIS

Otsailak 21 – martxoak 20

Ez duzu eskubiderik besteak epaitzeko zuk egindako akats berberak egin dituztela eta. Erakargarri egongo zara, batez ere gauean.



## Azaroak 28. ostirala

Babel Mundaia, antzezlan Vuela Bonita Korporation antzerki taldearen eskutik.

Lekua: Leidor.  
Ordua: 18:00.

## Abenduak 3

Idoia Sanchez ipuin kontalaria. Lekua: Haur Liburutegia (Errota). Ordua: 18:00.

## Abenduak 5, ostirala


Hitzaldi-egutia

"Dilema linguistikoak eta zentzuzko larritasunak" Hizlaria: Xabier Aierdi IKUSPEGI, Inmigrazioaren Euskal Behatoki Zuzendaria "Zergatik eta zertarako emigratu euskerara? Zergatik da garrantzitsua euskera?"

Hizlaria: Kike Amonarriz Soziolinguista eta umorista Galdera txanda. Lekua: Haur Liburutegia (Errota) Ordua: 18.30

Afaria Uzturre Sagardotegian, etorkinek Euskal Herriko ohiturak ezagutu eta euskararen eguna modu dibertigarrian ospatzeko. Trikitilariak egongo dira.

Sarrera salmenta: Iraxo Tabernan, Triangulo kafetegian, Alliri Kafetegian Prezioa: 26 euro Erosteke epea: Abenduak 2 Lekua: Uzturre Sagardotegia



Komikia: Joseba Antxustegietxarte

**CID**  
ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA  
Foruak, 5-bis • TOLOSA  
Tel.: 943 652 712

**Tolosako eskumuturrekoa**  
Eskumuturreko honek Tolosako sinbolik adierazgarrienak marrazten ditu.

- Santa Maria elizaren panoramika.
- Udaletxea
- Gaztelako atea. Erdi Aroko hirigunera sartzeko arku handia
- Gipuzkoako Artxibategia. XVI. mendetik Tolosa da probintziako artxibategiaren egoitza.
- Tolosako Inaueniak. Euskadiko inauenietan garrantzitsuena da.

Tolosako bakarrik. Hiri honetan oso loturik dauden eta sona eta kalitate handia duen laborea.

**CIDen bakarrik!**

**44-64**  
neurriak

**Berezi**  
Errementari kalea, 3  
Tolosa  
943 674 965  
www.lasonet.com/berezi



## maite estetika eta kosmetika zentroa

### Diodo Laserra:

Azken generazioko Diodo Laserra, ilea edo biloa kentzeko eraginkorrena.

- Erabateko eragina.
- Klimikoki frogaturiko depilazioa.

### Mikropigmentazioa:

- Akats txikiak konpontzen ditu eta zure bertute onenak nabarmentzen ditu.
- Ezpainak, bekainak eta betazalak (Eye Liner).

### Gabonetako oparia:

Jendea zoriontsu sentitzea nahi duelako oparietako bonoak sortu ditu Maite estetika eta kosmetika zentruak. Bonoekin zure lagun maiteei tratamendu estetiko aurreratuenak eta produktu kosmetikorik hoberenak oparitu ahal dizkiezu.

Gabon hauetan oparitu osasuna eta zoriontasuna!

Tfnoa. 943 670338 | Leitza kalea z/g Tolosa

**Maite**  
ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA  
ondo doakizu.



**Senda Bide**  
Dietista diplomatuaren aholkularitza profesionala

Dieta pertsonalizatuak  
Doako bisitak



- Elikadura biologikoa
- Kontsulta naturista
- Zeliakoentzako elikadura
- Bibirako orduak hartzen ditugu.



**Benetako jatorrizko Bibi**

San Frantzisko, 19 - Telf.: 943 655 444 - Tolosa  
Korreo kalea, 3 - Tel.: 943 674 140 - Tolosa